



IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO
EUSKAL KONTSEILUA
CONSEJO VASCO PARA LA
PROMOCIÓN DE LA ACCESIBILIDAD

**Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren lehen Ekintza Planean
jasotako ekintzak bultzatzea, ezartzea, jarraipena egitea eta gauzatzea**

Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**


LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES

IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN EUSKADIKO ESTRATEGIAREN I. EKINTZA PLANA

2022. urteko ebaluazio-txostena

2023ko martxoa



AURKIBIDEA

1.	SARRERA	4
2.	IRISGARritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Ekintza Plana.....	7
3.	EKINTZA PLANEAN JASOTAKO EKINTZEN AURRERAPEN- ETA EZARPEN-MAILA.....	10
3.1	Sarrera	11
3.2	Ebaluaziorako informazioa biltzeko egindako zereginak.....	12
3.3	1. ardatza: Egitura. 1. Gobernantza: Irigarritasunaren kudeaketa.....	15
3.4	2. ardatza: Egitura. 2. Eskubideak bermatzeko esparru juridikoa	29
3.5	3. ardatza: Beharrezko aldaketak 1. Erantzukidetasuna eta partaidetza	41
3.6	4. ardatza: Beharrezko aldaketak 2. Irigarritasunean trebatzea	51
3.7	5. ardatza: Irigarritasunaren promozioa 1. Irigarritasuna sustatzea	59
3.8	6. ardatza: Irigarritasuna sustatzea 2. Berrikuntzaren bidezko irtenbideak	75
4.	EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKEKO KIDEEN JARDUNA.....	85
4.1	Sarrera	86
4.2	Eusko Jaurlaritzako sailen jarduna.....	88
4.3	Elkarte eta Elkargo Profesionalen Jarduna	121
4.4	Hiriburu eta Udalen Jarduna.....	127

AURKIBIDEA

TAULEN AURKIBIDEA

2.1 taula	Irigarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Ekintza Planaren egitura	9
3.1 taula	Irigarritasunaren arduradunak Lurralde Historikoen arabera	19
3.2 taula	Udaletako irigarritasunaren arduradunen kargua	20
3.3 taula	Eusko Jaurlaritzak udalei Irigarritasun Planak eta irigarritasuna hobetzeko Obrak egiteko emandako diru-laguntzen zenbatekoa	23
3.4 taula	Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzen bilakaera	23
3.5 taula	Irigarritasun Planak lurralde historikoen arabera	24
3.6 taula	Irigarritasun Planetan aurreikusitako aurrekontuen eta gauzatutako aurrekontuen zenbateko osoa	25

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

3.1 grafikoa	Erakunde publikoetako irigarritasun-arduradunak identifikatzea	19
3.2 grafikoa	Eusko Jaurlaritzaren irigarritasunerako laguntzak Lurralde Historikoen arabera banatua	23
3.3 grafikoa	Euskal Autonomia Erkidegoko udalen Irigarritasun Planak	24
3.4 grafikoa	Irigarritasun planen banaketa, plana onartu zen urtearen arabera	24
3.5 grafikoa	Irigarritasun Planetan aurreikusitako aurrekontuen zenbateko osoa (milioi euro), plana onartu zen urtearen arabera	25
3.6 grafikoa	Irigarritasun Planen gauzatze ehunekoa	26
3.7 grafikoa	Irigarritasuna hobetzeko jarduerak garatu al dira, lau urteko Irigarritasun Planean sartuta ez daudenak?	26
3.8 grafikoa	Irigarritasuna hobetzeko urteko aurrekonturik bada?	26
3.9 grafikoa	Txertatu al da irigarritasun-irizpiderik ekitaldien antolaketan?	45
3.10 grafikoa	Erabilgarritasunean, hizkuntza argian eta irakurketa errazean oinarritutako arreta irigarria bermatzeko neurriak hartu al dira?	64
3.11 grafikoa	Abian jarri al da erabiltzaileak antzemandako beharrak edo/eta gabeziak jasotzeko sistemaren bat?	69
3.12 grafikoa	Ba al da irigarritasuna hobetzeko urteko aurrekonturik?	71



1.

Sarrera



1. SARRERA

1. Sarrera

Irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, hiri-ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraiobideen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasuna bermatzeko helburuarekin onartu zen, pertsona guztiek eta, batez ere, mugikortasun murriztua, komunikazio zailtasunak edo beste edozein muga psikiko zein sentsozial, aldi baterako zein betirako, dituztenek era autonomoan gozatzeko aukera emanez.

Irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legeko V. idazpuruak, bere 24. artikuluan, **IRISGARritasuna SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA** sortzen du, aholku eta parte-hartze organo gisa, eta bertan honako hauek egongo dira ordezkaturak: Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak, irisgarritasunean zailtasunak dituzten pertsonen eskubideen alde jardutea xede duten elkarte-erakundeetatik ordezkariak handiena dutenak, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen erakundeak, sustatzaileen eta eraikitzaileen elkarteetatik ordezkariak handiena dutenak eta Arkitektoen, Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen eta Bide, Ubide eta Portu Ingeniarien elkargoak, Lege horren 25. artikuluan xedatzen den osaera eta egiturarekin.

26. artikuluan zehazten den modura, honako egiteko hauek izango ditu Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak:

- a) Urtean behin txosten bat egitea, lege honetan oharmandakoa zein mailataraino betetzen den ezagutarazteko, eta gero, Legebiltzarrerara bidaltzea.
- b) Irisgarritasun arloan aginpidedun diren organoei laguntza eman eta jarduteko irizpideak proposatzea, lege honetan xedatutakoaren arabera.
- c) Horren antolamendu eta funtzionamendurako araudia onestea.
- d) Bere esku uzten diren beste egiteko batzuk.

Euskadik Irisgarritasun Unibertsala sustatzeko konpromezua hartu du, **Lehendakariak Irisgarritasunaren Euskal Kontseiluan egindako adierazpenaren bidez**, Irisgarritasuna sustatzeko legea onartu zenetik 20 urte bete direla ospatzeko (2017ko abendua).

2020ko otsailaren 4an ospatutako Gobernu Kontseiluan [Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia](#) onartu zen, zeina oinarri izan baita [Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Lehen Ekintza Plana](#) egiteko. Plan hau onartua izan zen ISEK-Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak 2021eko uztailaren 21ean egindako ohiko bileran, eta 2021eko azaroaren 2an Gobernu Kontseiluaren onespena jaso zuen.

Dokumentu hau, Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Lehen Ekintza Planaren garapen-maila aztertzen duen ebaluazio txostena da. Ekintza Plan honek, 6 ardatz estrategiko, 18 jarduera ildo eta 41 ekintza ditu.

Ekintza Plana Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren tresna da. Estrategia hori pertsona guztien bizi-kalitatea hobetzeko sortu da, desgaitasun-egoeran egon ala ez, eta jardueraremu guztien zeharkako gai gisa ulertuta. Ekintza Plan hau ezartzea erakunde publiko eta pribatu guztien eta herritar guztien erantzukizuna da.

1. SARRERA

Plan hau prozesu baten abiapuntua da, arlo edo eremu bakoitzean garatu beharrekoa. Prozesu horrek oztopo fisikoak eta mentalak, sozialak eta instituzionalak hautsi beharko ditu, gizarte osoa eta eragileak barne hartuz, eta zeharkakotasuna eta unibertsaltasuna ardatz hartuta, eta garaietara egokituko da. Plan dinamikoa eta inspiratzailea da.

Planean jasotzen diren ekintza gehienek eragile arduraduna ISEK bera da, jarduera horiek egin ahal izateko baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak jarri baititu. Ekintza horietako bat, hain zuzen, Planaren garapen-mailaren jarraipena eta ebaluazioa egitea da, eta dokumentu honek eskakizun horri erantzuna ematen dio.

Dokumentuak sei kapitulu ditu guztira, sarrera hau barne. Bigarren kapituluak, Ebaluazioaren helburua aurkezten da, hau da, Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Ekintza Plana bera.

Hirugarren kapituluak Ekintza Planean jasotako ekintzen garapena eta aurrerapen-maila jorratzen du. Ildo horretan, Planean jasotako 41 ekintzen esparruan garatutako jarduera bakoitza zehazten da. Kapitulu honek zortzi azpi-atal ditu, sarrera batekin hasten da, eta informazioa biltzeko egindako lanen deskribapena eta ardatz estrategiko bakoitzerako atal bat biltzen ditu, ekintza bakoitzeko fitxa bat barne.

Laugarren kapituluak Eusko Jaurlaritzako sailen (zuzendaritzak, sozietate publikoak eta erakunde autonomoak) eta ISEKeko beste kide batzuen (elkarteak, elkargo profesionalak) jarduera du ardatz. Halaber, hiru euskal hiriburuen fitxak jasotzen dira.

Bosgarren kapituluak, Ekintza Planean jasotako 41 ekintzen aurrerapen-mailaren agente-taula aztertzen da, datozen urteetarako ekintza bakoitzaren programazioaren aurreikuspena barne. Era berean, Ekintza Planak jasotzen dituen adierazleen agente-taula aurkezten da, jarraipena egiteko.

Azkenik, seigarren kapituluak, talde ebaluatzailearen gomendioak ematen dira Ekintza Planaren ezarpenean aurrera egiteko, eta halaber, 2023rako aurreikusitako hurrengo jarduerak biltzen dira.



2.

**Irisgarritasun
Unibertsalaren
Euskadiko
Estrategiaren
Ekintza Plana**

2. IRISGARritasun UNIBERTSALAREN EUSKADIKO ESTRATEGIAREN EKINTZA PLANA

2. Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren I. Ekintza Plana

2020ko otsailaren 4an, **Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia** onartu zen. Estrategia horren bidez, irisgarritasuna gainditu nahi da, hau da, desgaitasuna duten pertsonentzako oztopoak ezabatu nahi dira. Estrategiaren eta bere Lehen Ekintza Planaren, 2021eko uztailaren onartua eta dokumentu honetan ebaluatzen dena, helburua da “inguru, prozesu, produktu, zerbitzu eta komunikazio guztiak pertsona guztientzat erabat eskuragarriak, erabilgarriak eta ulergarriak izatea bermatzea”.

Ildo horretan, Estrategiaren eta Ekintza Planaren arabera, irisgarritasuna pertsona ororen eskubidea da, desgaitasun egoeran egon ala ez. Planaren unibertsaltasunaren kontzeptuak pertsona guztiak kontuan hartzen ditu.

Era berean, irisgarritasuna eremu guztietarako zeharkako gai gisa ulertzen da. Hala, helburua da irisgarritasunaren kontzeptua hirigintza edo eraikuntza bezalako arloekin soilik lotzea saihestea.

Ekintza Plana 6 ardatz estrategikoren inguruan egituratzen da, 3 atal handitan antolatuta:

- Oinarria edo **Beharrezko egitura**
- Bidea edo azken helburura iritsi ahal izateko **Beharrezko aldaketak**
- Helburua, hau da, nora iritsi nahi den: **Irisgarritasuna sustatzea**



Lehen atal handian, “Beharrezko egitura” izenekoan, Planak, **Gobernantza**, oinarritzko zutabetzat hartzen du. Planaren lehen ardatza da, eta erakunde guztien gaia da, hau da, eragile guztien erantzukidetasuna. Bigarren ardatza **Esparru Juridikoa** da, ezinbestekoa dena pertsona guztien irisgarritasun-eskubidea bermatzeko.

Bigarren atalari dagokionez, “Beharrezko aldaketak”, Planak, hirugarren ardatzean, eragile guztien **Erantzukidetasunaren eta Partaidetzaren** aldeko apustua egiten du. Lortu nahi diren helburuen irismena guztion sentsibilizazioarekin eta parte-hartzearekin bakarrik lortuko da. Era berean, beharrezkoa da **Trebakuntzan** aurrera egitea (laugarren ardatza), prestakuntza egokiaren bidez, bai oinarritzkoa eta zeharkakoa prestakuntza-eremu guztietan, bai zehatzagoa irisgarritasuneko profesionalak gaitzeko.

Hirugarren eta azken blokeak, “Irisgarritasuna sustatzea” izenekoak, irisgarritasuna esparru guztietan txertatuko duten ekintza zehatzak aurreikusten ditu, berrikuntza teknologiko eta sozialaren laguntza oso garrantzitsua delarik. Hala, maila eta jarduera-eremu guztietan bosgarren ardatzak **Irisgarritasuna sustatzen** du; seigarrenak, berriz, **Berrikuntzaren bidez irtenbideak** bilatzen ditu, berrikuntza teknologiko eta sozialaren, ikerketaren eta garapenaren bidez.

Plan hau, beraz, 3 atal, 6 ardatz estrategiko, 18 jarduera-ildo eta guztira 41 ekintzatan egituratuta dago. Hurrengo taulan, Ekintza Planaren egitura zehazten da.

2. IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN EUSKADIKO ESTRATEGIAREN EKINTZA PLANA

2.1 taula Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Ekintza Planaren egitura

ARDATZA	JARDUERA ILDOA	EKINTZAK	HELBURUA
BEHARREZKO EGITURA	5 jarduera-ildo	14 ekintza	
1. Gobernantza: irisgarritasunaren kudeaketa	1.1. Lidergo instituzionala eta politikoa izatea eta Planaren egitura arduraduna sortzea 1.2. Informazioa eta ezagutza sortzea eta partekatzea	4 ekintza Ekintza 1	Gobernantza-eredu berri bat sortzea estrategiaren buru izateko eta ezagutzak sortzeko
2. Eskubideak bermatzeko esparru juridikoa	2.1. Araudia berrikustea, kontzeptuak argitzeko eta jarduteko irizpide uniformeak ezartzeko 2.2. Araudia behar bezala interpretatzen eta aplikatzen lagunduko duten tresnak sortzea 2.3. Arauak betetzeko figurak eta eskumenak sortzea	2 ekintza 3 ekintza 4 ekintza	Irisgarritasun unibertsalaren arloan indarrean dagoen araudia betetzen dela bermatzea
BEHARREZKO ALDAKETAK	6 jarduera-ildo	11 ekintza	
1. Erantzukidetasuna eta partaidetza	1.1. Gizarte osoarekin irisgarritasunaren balioak partekatzea 1.2. Erakunde publikoak eta pribatuak erantzukide egitea irisgarritasun unibertsalaren balioetan 1.1. Kontsulta publikoko eta partaidetzako ekimenak bultzatzea	2 ekintza 2 ekintza 2 ekintza	Gizarte osoaren erantzukidetasuna, partaidetza eta kontzientziazioa areagotzea
2. Irisgarritasunean trebatzea	2.1. Hezkuntza-zikloetan irisgarritasunean trebatzea 2.2. Profesionalak gaitzea 2.3. Pertsonen irisgarritasun unibertsalaren arloan duten ezagutza eta esperientzia formalki aitortzea	2 ekintza Ekintza 1 2 ekintza	Pertsonak irisgarritasunaren arloan gaitzea
IRISGARRITASUNA SUSTATZEA	7 jarduera-ildo	16 ekintza	
1. Irisgarritasuna sustatzea	1.1. Administrazioen eta herritarren arteko harreman-eredu irisgarria sustatzea 1.2. Planaren eremu guztietan irisgarritasuna bermatzea 1.3. Irisgarritasuna sustatzeko ekintzak finantzatzea 1.4. Parte-hartze politikoa bermatzea	3 ekintza 2 ekintza 2 ekintza 2 ekintza	Irisgarritasuna oinarrizko elementu gisa txertatzea eremu guztietan
2. Berrikuntzaren bidezko irtenbideak	2.1. Gizarte- eta enpresa-sare sendo bat sortzen laguntzea, irisgarritasunerako irtenbide teknologikoak emango dituen 2.2. Gizarte-berrikuntzaren bidez, laguntza- eta arreta-ereduak bultzatzea 2.3. Formula alternatiboen bidez gatazkak prebenitzea eta konpontzea	4 ekintza Ekintza 1 2 ekintza	Ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologiko eta sozialaren bidez irtenbideak sortzea



3.

**Ekintza Planean
jasotako ekintzen
aurrerapen- eta
ezarpen-maila**

3. EKINTZA PLANEAN JASOTAKO EKINTZEN AURRERAPEN- ETA EZARPEN-MAILA

3.1 Sarrera

Kapitulu honetan Ekintza Planean jasotako 41 ekintzetako bakoitzaren aurrerapen-maila zehazten da Planaren lehenengo gauzatze urtean. Kasu bakoitzean egindako zereginak, lortutako emaitzak eta, hala badagokio, eskuragarri dagoen informazioaren baitan, jarraipen adierazleek lortutako balioak jasotzen dira.

Zentzu horretan, aipatzekoa da kontsultatutako erakundeengandik datu kuantitatiboak lortzeko zailtasuna. Gai horri aurre egiteko, beharrezkoa izango litzateke entitateek beraien irisgarritasuna hobetzeko egindako jardueren eta gauzatutako aurrekontuaren jarraipen zehatz bat egitea. Dena den, egoera da erakunde gutxik egiten dutela jarraipen hau, horregatik, ezin dute daturik eman adierazleak osatzeko.

Gauzak horrela, dokumentu guztian zehar informazio asko ematen bada ere, baita datu kuantitatiboak zenbait kasutan, esan behar da Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Ekintza Planaren ebaluazioa, bere lehenengo gauzatze urtean, batez ere datu kualitatiboak oinarri hartuta egin dela.

Dokumentu hau irakurri aurretik, azpimarratu behar da erakunde publikoek, oro har, ez dutela Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren eta haren Ekintza Planaren berri. Izan ere, kontsultatutako erakunde gehienek ez zekiten halakorik zegoenik ez eta erakunde eta eragileek hura ezartzeko duten erantzukidetasunari dagokionez zer inplikazio zituzten. Hori dela eta, lehen hurbilketa honen balio handi bat izan da, hain zuzen, Estrategia, Ekintza Plana, irisgarritasun unibertsalaren kontzeptua eta eragile eta eremu tematiko guztien zeharkako erantzukidetasuna zabaltzea.

Jasotako informaziotik abiatuta, ekintza bakoitzerako, fitxa bat landu da, non ekintza bakoitza zein talde, ardatz eta jarduera ildotan dagoen txertatuta egiaztatu daitekeen. Era berean, ekintzaren xehetasuna eta helburua, eragile arduraduna eta ekintza honekin lortzea aurreikusten diren muga partzialak eta bukaerakoak azaltzen dira. Aurrerapen mailaren eta egindako zereginen atalean, ekintza bakoitzaren esparruan egin diren zeregin zehatzak zehazten dira. Azkenik, ekintza bakoitzaren jarraipena egiteko Ekintza Planak zehaztu dituen adierazleak jasotzen dira.

Kapitulu hau, 8 azpi-ataletan egituratu da, sarrera hau barne. Hala, 3.2. atalean egin diren zeregin desberdinen xehetasuna jasotzen da ebaluazioa egiteko beharrezkoa den informazioa biltzeko. Hurrengo atalean, Planaren 6 ardatzetako bakoitzaren jarraipena egiten da, non Planean jasotako 41 ekintzen fitxak biltzen diren.

3. EKINTZA PLANEAN JASOTAKO EKINTZEN AURRERAPEN- ETA EZARPEN-MAILA

3.2 Ebaluaziorako informazioa biltzeko egindako zereginak

Ekintza Planean jasotako ekintza bakoitzaren betetze-maila ebaluatzeko beharrezkoa den informazioa biltzeko, **online formulario** bat prestatu da. Formulario hori ekintzak inplementatzeko arduraduten eragileen artean banatu da.

Plana gauzatu den lehen urtean, kontsulta erakunde publikoei eta ISEKeko¹ kideei zuzendu zaie.



Udalen kasuan, Euskadiko 251 udalekin jarri da harremanetan. Zehazki, hurrengo zereginak burutu dira:

- Udalei zuzendutako webinar bat egin da, Ekintza Plana, beren eskumeneko ekintzak eta informazioa biltzeko diseinatutako tresna azaltzeko (2022ko ekainak 7):
 - ✓ EUDELein kontaktuan jarri, webinarren formatua eta edukia zehazteko
 - ✓ Udalei zuzendutako aurkezpen-gutuna prestatu
 - ✓ Udal bakoitzeko teknikoen kontaktu-zerrenda prestatu webinarren deialdia bidaltzeko
 - ✓ Webguneko inskripzioen jarraipena egin
 - ✓ Aurkezpen dokumentua prestatu
 - ✓ Webinarra egin
- Webinarrean aurkeztutako azalpen-dokumentuak prestatu, euskaraz eta gazteleraz, eta ondoren, udal guztiei helarazi posta elektroniko bidez.
- Udalei zuzendutako mailinga egin (lehen mailinga 2022ko ekainaren 10ean), formularioa betetzeko eskatuz.
- Kontsultak jaso eta zalantzak argitu (telefonoz eta posta elektroniko bidez).
- Udal guztiekin harremanetan jarri telefonoz, Ekintza Planean jasotako ekintzen gauzatze-mailari buruzko informazioa eskatzeko. Hiru dei sorta egin dira udal guztietara 2022ko ekainetik 2023ko otsailera bitartean.
- Aurrez aurreko bilera Bilboko Udalarekin:
 - ✓ Kalitate eta Ebaluazio Arloa eta Mugikortasun Arloa 2022/12/02
 - ✓ Etxebizitza Arloa 2022/12/02
- Aurrez aurreko bilera egiteko eskaera, Vitoria-Gasteizko Udalarekin eta Donostiako Udalarekin
- Gogorazpen-mezuen hainbat bidalketa.
- Irisgarritasuna hobetzeko planak eta obrak egiteko Eusko Jaurlaritzaren laguntza deialdien ebazpenen lanketa.
- Arabako Foru Aldundiaren obra eta zerbitzuetarako laguntzen deialdietako ebazpenen lanketa eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien bestelako laguntzak bilatzea.
- Udalen webguneak kontsultatu.

¹ Egikaritzearen bigarren urtean, erakunde pribatuei ere egingo zaie kontsulta.

3. EKINTZA PLANEAN JASOTAKO EKINTZEN AURRERAPEN- ETA EZARPEN-MAILA

Eusko Jaurlaritzako sailei dagokienez, hasiera batean, ISEKeko sail bakoitzeko ordezkariekin harremanetan jarri da. Lehen kontaktu honek, sail bakoitzeko irisgarritasunaren arloko arduradunak eta/edo hizketakideak identifikatzeko aukera eman du.

Garrantzitsua da adieraztea prozesu hau oraindik ez dela bukatu, batik bat, arlo berriak identifikatu direlako irisgarritasunaren hobekuntzan aurrera egiteko.

Zehazki, hurrengo zereginak burutu dira:

- Mailinga egin Eusko Jaurlaritzako Sail guztiei (2022ko ekainak 3).
- Telefono deiak egin Eusko Jaurlaritzako Sail guztiei, informazio-saioak hitzartzeko, solaskideak identifikatzeko eta Ekintza Plana eta informazioa biltzeko prozesua azaltzeko.
- Eusko Jaurlaritzako Sailei zuzendutako berariazko formularioak prestatu
- Formularioak eta betetzeko jarraibideak bidali
- Informazio-bilerak egin Eusko Jaurlaritzako Sailekin:
 - ✓ Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila (Garraio Plangintzaren Zuzendaritza). 2022/06/27
 - ✓ Segurtasun Saila (Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza). 2022/07/07
 - ✓ Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila (Baliabide Orokorren Zuzendaritza) 2022/07/07
 - ✓ Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila (Zerbitzu Zuzendaritza) 2022/07/14
 - ✓ Osasun Saila (Osakidetzako Zuzendariordetza) 2022/07/15
 - ✓ Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila (Gizarte Zerbitzuen arduraduna) 2022/07/21
 - ✓ Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (Zerbitzu Zuzendaritza eta Kultura Ondarearen Zuzendaritza) 2022/07/28
 - ✓ Lan eta Enplegu Saila. (Lanbideko Zerbitzu Zuzendaritza) 2022/08/03
 - ✓ Hezkuntza Saila. 2022/09/02
 - ✓ Gizarte Politiketako eta Justiziako Departamentua. 2022/11/24
 - ✓ Garraio Saila. 2022/11/24
 - ✓ Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. 2022/11/24
 - ✓ Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila. 2022/11/29
 - ✓ Osasun Saila. 2022/11/29
 - ✓ Lanbideko Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza. 2022/11/29
 - ✓ Zuzenean. Herritarrak Hartzeko Zuzendaritza 2023/01/31
 - ✓ Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila. 2023/02/01
 - ✓ IREKIA. Gobernu Irekiaren Zuzendaritza 2023/02/01
 - ✓ Segurtasun Saila 2023/02/09
 - ✓ Basquetour 2023/02/10
 - ✓ Kontsumobide 2023/02/23
 - ✓ Osalan 2023/03/02

3. EKINTZA PLANEAN JASOTAKO EKINTZEN AURRERAPEN- ETA EZARPEN-MAILA

Azkenik, kontsulta, hiru foru-aldundiei zuzendu zaie:

- Telefono bidezko harremana hiru foru-aldundiekin, erakundean irisgarritasunaz arduratuko den solaskide bat bilatzeko
- Aldundientzako berariazko formularioak egitea
- Formularioak eta jarraibideak bidaltzea
- Informazio-saioa Arabako Foru Aldundiko irisgarritasun-arduradunarekin. 2022/10/27.
- Arabako Foru Aldundiko irisgarritasun arduradunak Arabako Foru Aldundian egingo duen sailarteko informazio-bilera antolatzea. (Gerora, bertan behera geratu zen AFAREN beraren barne-arazoengatik. Ezin izan da bilera hau egin).
- Bizkaiko Foru Aldundiaren informazio-saioa (Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia). 2022/10/28.

2022an, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren (ISEK) Batzorde Iraunkorrak hiru bilera egin ditu:

- ✓ 2022ko martxoaren 30ean
- ✓ 2022ko maiatzaren 5ean
- ✓ 2022ko irailaren 29an

Gainera, 30 barne-bilera baino gehiago egin dira ISEKen eta laguntza teknikoaren artean, 2022ko martxoaren 30etik 2023ko martxoaren 20ra Ekintza Plana ezartzeko eta haren jarraipena egiteko.

Aipatu behar da txosten honetan erakundeek emandako informazioa islatzen dela. Beraz, litekeena da erakunde batzuek irisgarritasun unibertsalaren esparruan jarduketa interesgarriak garatu izana, nahiz eta ez eman honen berri, eta, horregatik, ezin dira ebaluazio-txosten honetan sartu.

3. EKINTZA PLANEAN JASOTAKO EKINTZEN AURRERAPEN- ETA EZARPEN-MAILA

3.3 1. ardatza: Egitura. 1. Gobernantza: Irisgarritasunaren kudeaketa

Ardatz honek, 2 jarduera-ildo eta 5 ekintza ditu:

- 1. ekintza: ISEKi baliabide ekonomikoak eta giza-baliabideak ematea.
- 2. ekintza: Irisgarritasunaren arloan eskumena duten organoei eta, oro har, herritarrei laguntza eta aholkularitza emateko zerbitzua abian jartzea.
- 3. ekintza: Erakunde publikoetan irisgarritasunaren ardura duten erakundeen, organoen, administrazio-unitateen eta/edo langileen sarea identifikatzea.
- 4. ekintza: Irisgarritasuna sustatzeko lau urteko programak idaztea eta eguneratzea.
- 5. ekintza: Irisgarritasunaren Euskal Behatokia sortzea.

Ardatz honen helburua gobernantza eredu berri bat sortzea da, estrategia gidatzeko eta ezagutza sortzeko. Horretarako, baliabide ekonomikoak eta giza-baliabideak eman zaizkio ISEKi (1. ekintza), eta laguntza tekniko kontratatu da ISEKi laguntzeko Irisgarritasun Unibertsalaren Estrategiaren Lehen Ekintza Plana garatzen, bultzatzen, haren jarraipena egiten eta ebaluatzen.

Gobernantzak erakunde guztiak inplikatzeko, eta eragile guztien zeharkako erantzukidetasun gisa ulertu behar da; beraz, garrantzi handiko gaia da erakunde guztiek irisgarritasunaren arloko arduradunak izatea (3. ekintza). Hori dela eta, Plana gauzatu den lehen urte honetan, Ekintza Planaren zabalkundean eta inplikazioetan, haren zeharkakotasunean eta beharrezko erantzukidetasunean, irisgarritasun unibertsalak dakarrenari buruzko informazioan eta sentsibilizazioan eta pertsona arduradun horien identifikazioan oinarritu dira ahaleginak

Era berean, eta abenduaren 4ko 20/1997 Legearen 13. artikulua jasotzen duen bezala, erakunde publiko bakoitzak lau urteko irisgarritasun-plan bat izan behar du (4. ekintza), bere kanpo-espazio guztiak, eraikinak, azpiegiturak eta erabilera edo zerbitzu publikoko zerbitzuak barne hartzen dituen. Egiaztatu da udal gehienek azken 20 urteetako uneren batean Irisgarritasun Plan bat egin dutela, baina plan horietako gehienak zaharrak dira eta ez dira eguneratu. Gainera, kasu gehienetan ez da plan horien betearazpenaren jarraipenik egiten.

Bestalde, gaur egun, udal-planak hirigintza eta etxebizitza arloaren mende daude, eta udal-eraikinetan eta hiri-espazioetan oztipo arkitektonikoak kentzeari buruzkoak dira. Ez dira erakunde osorako zeharkako plan gisa bezala planteatzen. Horregatik, 2022an zehar, beste ardatz batean sartuta dauden baina ardatz honekin lotura zuzena duten ekintzak garatzen lan egin da: erakundeei Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integralak egiten lagunduko dien gida bat egiteko lan-saioak.

Azkenik, gobernantzaren beste alderdi bat da Euskadiko irisgarritasunari buruzko informazioa eta ezagutza sortu eta partekatzea. Erakunde publikoetara hurbiltzeko prozesu horretan, egiaztatu da udal-langileek eta Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jarritako pertsonen aholkularitza eta laguntza eskatzen dutela, gidaliburu, jarraibideen eta gomendioen bidez, irisgarritasun unibertsalaren ezarpenean aurrera egiteko. Hala, Irisgarritasunaren Euskal Behatokia (5. ekintza) izango da informazioa zabaltzeko aukera emango duen tresna, baina aholkularitza-zerbitzu bat ere izango du (2. ekintza), bai irisgarritasunaren arloan eskumena duten organoentzat, bai herritarrentzat, oro har. Aldez aurreko lanak egin dira eta 2023an Behatokia sortzea aurreikusten da.

Bien bitartean, laguntza-dokumentu bat egin da, eta bertan erakundeentzako zenbait gomendio jaso dira "Irisgarritasun Unibertsaleko Plana. Nondik hasi? Nire erakundearen irisgarritasun unibertsala ezartzen hasteko gomendio batzuk".

3. EKINTZA PLANEAN JASOTAKO EKINTZEN AURRERAPEN- ETA EZARPEN-MAILA

a) 1. ekintza

1. ekintza ISEKi baliabide ekonomikoak eta giza-baliabideak ematea		
TALDEA	1. BEHARREZKO EGITURA	
ARDATZA	EGITURA. 1. GOBERNANTZA: IRISGARritasunAREN KUDEAKETA	
JARDUERA-ILDOA	Egitura 1.1. Lidergo instituzionala eta politikoa izatea eta Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Ekintza Planaren egitura arduraduna sortzea	
EKINTZAREN XEHETASUNAK / HELBURUAK	ISEKen antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamendua berrikustea, sektore arteko mahai gisa lan egin dezan, eta administrazioen, herritarren, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren, elkargo profesionalen, finken administrazioen, enpresa-esparruaren eta abarren arteko lankidetzarako bidea izan dezan, ekintza-planean aurreikusitako ekimenak eskala guztietan ezarriko direla bermatzeko.	
ARDURADUNA	ISEK	
HELBURUAK	HELBURU PARTZIALAK	ISEKek Ekintza Planaren jarraipena egiteko erabilitako formularioak eta prozedura definitu.
	AZKEN HELBURUA	
EKINTZAREN / BURUTUTAKO ZEREGINEN EZARPENEAN IZANDAKO AURRERAPEN MAILA		
- ISEKi Irisgarritasun Unibertsaleko Estrategiaren lehen Ekintza Plana garatzen, bultzatzen, jarraipena egiten eta ebaluatzen laguntzeko laguntza tekniko kontratatzea. - Araudia eta Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluan parte hartzen duten erakundeen zerrenda berrikusi dira, eragile edo gonbidatu berriak proposatzeko. - Ponentziatara/lantaldeetara eta beste ekintza batzuetara eragile gonbidatu gisa joateko aukera proposatzen da: ✓ CERMI Euskadi (EDEKA) ✓ FEDEAFES (Osasun mentala) ✓ FEVAS (Gizarteratze osoa) ✓ Berrikuntzari buruzko hitzaldietarako INNOBASQUE izatea proposatzen da. - ISEKek Ekintza Planaren jarraipena egiteko informazioa biltzeko formularioak zehazten dira. Online formatuko formularioak prestatzen dira eta posta elektroniko bidez banatzen dira Ekintza Plana gauzatzeko ardura duten eragile guztien artean. 2022ko maiatzaren 5eko Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrean informazioa biltzeko formularioak eta prozedura aurkeztu dira.		

3. EKINTZA PLANEAN JASOTAKO EKINTZEN AURRERAPEN- ETA EZARPEN-MAILA

b) 2. ekintza

2. ekintza Irisgarritasunaren arloan eskumena duten organoei eta, oro har, herritarrei laguntza eta aholkularitza emateko zerbitzua abian jartzea																	
TALDEA	1. BEHARREZKO EGITURA																
ARDATZA	EGITURA. 1. GOBERNANTZA: IRISGARRITASUNAREN KUDEAKETA																
JARDUERA-ILDOA	Egitura 1.1. Lidergo instituzionala eta politikoa izatea eta Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Ekintza Planaren egitura arduraduna sortzea																
EKINTZAREN XEHETASUNAK / HELBURUAK	Beharrezko egitura zehaztea (figurak, funtzioak, berariazko lan-batzordeak eta metodologia) eta ezartzea																
ARDURADUNA	ISEK																
HELBURUAK	HELBURU PARTZIALAK																
	AZKEN HELBURUA	Aholkularitza-zerbitzu orokorra abian jartzea															
EKINTZAREN / BURUTUTAKO ZEREGINEN EZARPENEAN IZANDAKO AURRERAPEN MAILA																	
- Ekintza hau “Irisgarritasunaren Euskal Behatokia” sortzeko 5. ekintzari lotuta dago; izan ere, Behatoki honen eginkizunetako bat irisgarritasunaren arloan eskumena duten organoei eta, oro har, herritarrei, laguntza- eta aholkularitza-zerbitzua eskaintzea izango da. Behatokia sortzeko fasean dago gaur egun. - Behatokian integratuta egongo den laguntza- eta aholkularitza-zerbitzuari buruzko hainbat balorazio egin dira. Aurrera egin da haren jarduera-protokolo baten lanketan. Protokolo horretan, irismena, kudeaketa, formatua eta erantzun-mota definitzen dira, besteak beste. - Gune hori sortu bitartean, ISEKek aholkularitza-zerbitzu hori eskaintzen jarraitu du 2022an: ✓ 266 kontsulta erantzun ziren 2022an: ○ 67, telefono bidez ○ 117, posta elektroniko bidez ○ 82, beste baliabide batzuen bidez ✓ Gainera, udalek 131 salbuespenen berri eman diote ISEKi 2022an, obra-lizentziak emateko irisgarritasun-baldintzak betetzeari dagokionez:																	
<table><tr><th>Lurraldea</th><th>Espedienteak</th><th>Udalerriak</th></tr><tr><td>Araba</td><td>5</td><td>3</td></tr><tr><td>Bizkaia</td><td>68</td><td>14</td></tr><tr><td>Gipuzkoa</td><td>58</td><td>16</td></tr><tr><td>Guztira EAE</td><td>131</td><td>33</td></tr></table>			Lurraldea	Espedienteak	Udalerriak	Araba	5	3	Bizkaia	68	14	Gipuzkoa	58	16	Guztira EAE	131	33
Lurraldea	Espedienteak	Udalerriak															
Araba	5	3															
Bizkaia	68	14															
Gipuzkoa	58	16															
Guztira EAE	131	33															
ADIERAZLEAK																	
Laguntza eta aholkularitza zerbitzuak egindako aholkularitza-kopurua, eskaera nork egiten duen zehaztuta, bai eta kontsultatutako gaia ere (administrazioak, auzo-komunitateak, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak, enpresak, ekintzailetza- eta berrikuntza-nodoak, saltokiak eta establezimenduak).		266															

3. EKINTZA PLANEAN JASOTAKO EKINTZEN AURRERAPEN- ETA EZARPEN-MAILA

c) 3. ekintza

3. ekintza Erakunde publikoetan irisgarritasunaren ardura duten erakundeen, organoen, administrazio-unitateen eta/edo langileen sarea identifikatzea		
TALDEA	1. BEHARREZKO EGITURA	
ARDATZA	EGITURA. 1. GOBERNANTZA: IRISGARRITASUNAREN KUDEAKETA	
JARDUERA-ILDOA	Egitura 1.1. Lidergo instituzionala eta politikoa izatea eta Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Ekintza Planaren egitura arduraduna sortzea	
EKINTZAREN XEHETASUNAK / HELBURUAK	Erakunde bakoitzaren barruan irisgarritasun unibertsala bultzatzeaz, haren jarraipena egiteaz eta ezartzeaz arduratuko diren figurak identifikatzea. Erakunde autonomoak eta mendeko beste erakunde publiko batzuk ere sartuko dira.	
ARDURADUNA	ISEK	
HELBURUAK	HELBURU PARTZIALAK	Administrazio publikoen inbentarioa egitea, bakoitzaren egitura eta antolamendua zehaztuta, eremu bakoitzeko balio-katean bakoitzak dituen eskumenak erakusteko (adibidez, garraioaren arloan, Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen eskumenak daude) eta, horrela, arduradunak eta/edo solaskide egokiak eta beharrezkoak identifikatzeko eta lau urteko planen kopurua eta irismena zehazteko irizpideak izateko. Administrazio bakoitzak bere esparruan egin beharko du ariketa hori. Administrazio publiko bakoitzak aztertu eta informatuko du horri buruz.
	AZKEN HELBURUA	- Erakunde publiko guztien % 100ean arduradunak identifikatzea. - Autonomia Erkidegoan dauden erakunde publikoen errolda bat argitaratzea, horietako bakoitzean irisgarritasun-arduradunak identifikatuz.
EKINTZAREN / BURUTUTAKO ZEREGINEN EZARPENEAN IZANDAKO AURRERAPEN MAILA		
- Eragileen mapa egin da jarduera-eremu bakoitzean: espazio publikoak eta eraikuntza, garraioak, informazioa eta komunikazioa, hezkuntza, osasuna, lana, gizarte-politika, kultura, aisialdia, turismoa, merkataritza, justizia eta segurtasuna. - Eremu bakoitzerako maila anitzeko egitura eta eskumenak identifikatu dira: Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak eta beste eragile batzuk. - Ekintza honi eta beste batzuei buruzko informazioa biltzeko formulario bat prestatu da online formatuan, betetzen laguntzeko. Formulario hori Euskadiko udal guztiei, Eusko Jaurlaritzako sailei eta foru-aldundiei banatu zaie. - Erakunde publiko bakoitzean irisgarritasunaren arduradunak identifikatzeko lanean ari dira. Udalen kasuan, udal osoko irisgarritasun-arduradun bakarra identifikatzen saiatzen da. Orain arte, 173 arduradun identifikatu dira, hau da, udal guztien % 68,9. - Hala ere, arduradun horietako asko behin-behineko solaskideak dira, ez baitira zeharkako figura gisa identifikatzen udal osoan. Udalerrri gehienek ez dute udal osorako zeharkako irisgarritasunaren arduradunik. - Bestalde, Eusko Jaurlaritzako sail guztiekin harremanetan jarri da, eta irisgarritasun-arduradunak identifikatu dira zuzendaritzetan, enpresa publikoetan eta erakunde autonomoetan. Irisgarritasunaren arduradun bat identifikatu da gutxienez Eusko Jaurlaritzako 10 sailetatik 8tan (% 80). Guztira, 16 pertsona identifikatu dira; izan ere, sail batzuetan hainbat arduradun daude, zuzendaritzari edo sozietate publikoetako edo erakunde autonomoetako arduradunei dagokienez. - Foru-aldundiei dagokienez, hiru foru-aldundiekin harremanetan jarri da, eta Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundietako irisgarritasun-arduradunak identifikatu dira (Gipuzkoako Foru Aldundia falta da). (% 66,6)		

3. EKINTZA PLANEAN JASOTAKO EKINTZEN AURRERAPEN- ETA EZARPEN-MAILA


- Foru-aldundien barruan sail mailako arduradunak identifikatzeko ahalegina egin da. Sailen arteko bilera bat antolatu zen Arabako Foru Aldundian, ekintza-plana eta haren helburuak azaltzeko. Baina, ezin izan dira saio horiek egin.

ADIERAZLEAK			
	Udalak	Eusko Jaurlaritzako Sailak	Foru Aldundiak
Erakunde publikoetan identifikatutako irigarritasun-arduradunen kopurua	173	8	2
eta guztizkoarekiko %	% 68,9	% 80	% 66,6

c.1) Udaletatik lortutako informazioaren xehetasuna

Lurralde Historikoen arabera azterketak agerian uzten du Gipuzkoan identifikatu direla arduradun gehienak (guztizkoaren % 85), gero Bizkaian (% 62,8) eta, azkenik, Araban (% 54,9). Arabaren kasuan, esan behar da tamaina oso txikiko udalak direla nagusi, eta horietan kanpoko arkitekto aholkulari baten figura erabiltzen dela, astean behin udalera joaten dena eta hainbat udalen kudeaketa partekatzen duena. Udalerri txiki horietan, figura hori pertsona arduradun gisa aipatu dute, edo bestela, idazkaritzako edo alkatetzako pertsona bat izan da irigarritasunaren arduradun gisa aurkeztu dena, baina konbentzimendu handirik gabe. Gainerako kasuetan, nahiago izan dute esan ez dagoela irigarritasunaz arduratzen den pertsonarik, izenik eman gabe.

3.1 grafikoa Erakunde publikoetako irigarritasun-arduradunak identifikatzea



3.1 taula Irigarritasunaren arduradunak Lurralde Historikoen arabera

	Udalak GUZTIRA	Arduradunak guztira	
		Kopurua	%
Udalak			
Araba	51	28	% 54,9
Bizkaia	113	71	% 62,8
Gipuzkoa	87	74	% 85,0
Euskadi GUZTIRA	251	173	% 68,9

3. EKINTZA PLANEAN JASOTAKO EKINTZEN AURRERAPEN- ETA EZARPEN-MAILA

Arduradunaren karguaren azterketan sakonduz, informazioa eman dutenei soilik erreparatuz gero, egiaztatzen da % 61,8 kargu teknikoei dagokiela, batez ere arkitektoei eta aparejadoreei. Bestalde, udalen % 17,3k kargu politiko bat adierazi dute irisgarritasunaren arduradun gisa, % 12,7k profil administratiboagoa duten beste kargu batzuke, eta % 8,1ek kanpoko langileak (arkitekto aholkulariak).

3.2 taula Udaletako irisgarritasunaren arduradunen kargua

KARGUA	KOPURUA	Gutzizkoaren %	Erantzun dutenen %
Kargu politikoak	30	% 19,2	% 17,3
• Alkatea	24	% 9,6	% 13,9
• Alkateordea/2. alkateordea	4	% 1,6	% 2,3
• Zinegotziak (alkatetzakoak, hirigintzakoak)	2	% 0,8	% 1,2
Kargu teknikoak	107	% 42,6	% 61,8
• Udal-arkitektoa, obrak eta zerbitzuak,...	55	% 21,9	% 31,8
• Arkitekto teknikoa, aparejadorea	34	% 13,5	% 19,7
• Ingeniaria, ingeniari teknikoa	3	% 1,2	% 1,7
• Beste teknikari batzuk (mugikortasuna, ingurumena, iraunkortasuna, Lurralde Saila)	15	% 6,0	% 8,7
Beste kargu batzuk (idazkari kontu-hartzailea, administraria)	22	% 8,8	% 12,7
Kanpoko langileak (arkitekto aholkularia, kanpoko enpresa)	14	% 5,6	% 8,1
Guztira arduradunarekin	173	% 68,9	% 100,0
Irisgarritasun-arduradunik gabe edo informaziorik gabe	78	% 31,1	
GUZTIRA	251	% 100,0	

3. EKINTZA PLANEAN JASOTAKO EKINTZEN AURRERAPEN- ETA EZARPEN-MAILA

d) 4. ekintza

4. ekintza Irisgarritasuna sustatzeko lau urteko programak idaztea eta eguneratzea		
TALDEA	1. BEHARREZKO EGITURA	
ARDATZA	EGITURA. 1. GOBERNANTZA: IRISGARritasunAREN KUDEAKETA	
JARDUERA-ILDOA	Egitura 1.1. Lidergo instituzionala eta politikoa izatea eta Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Ekintza Planaren egitura arduraduna sortzea	
EKINTZAREN XEHETASUNAK / HELBURUAK	Abenduaren 4ko 20/1997 Legearen 13. artikulua betez, erakunde publiko bakoitzak lau urteko programa bat izan beharko du, eta programa horretan, kanpoko espazio guztiak, eraikinak, azpiegiturak eta erabilera edo zerbitzu publikoko zerbitzuak sartu beharko dira. Erakunde autonomoak eta mendeko beste erakunde publiko batzuk ere sartuko dira. Erakunde pribatuak, borondatez, lau urteko programa horiek egin ahal izango dituzte, beren jarduera-eremuaren ezarpena eta irisgarritasun-baldintzetara egokitzea planifikatzeko.	
ARDURADUNA	Hainbat erakunde publiko, beren eskumen-esparruetan	
HELBURUAK	HELBURU PARTZIALAK	- Herri-administrazioek urtean behin jakinaraziko diote ISEKi lau urteko programak prestatu dituztela, bai eta dauden programak eguneratu eta/edo handitu dituztela ere, bai eta programa horiek egiteko eta horietan jasotako esku-hartzeak gauzatzeko aurrekontu-zuzkidurak eguneratu eta/edo handitu dituztela ere. - Urtero, esparru bakoitzeko arduradunen eta solaskideen izendapenen eta/edo izan daitezkeen aldaketen berri emango zaio ISEKi.
	AZKEN HELBURUA	Lau urteko planak erakunde publikoen % 100ean
EKINTZAREN / BURUTUTAKO ZEREGINEN EZARPENEAN IZANDAKO AURRERAPEN MAILA		
- Ekintza hau 3. ekintzari lotuta dago: irisgarritasunaren ardura duten erakundeek eta pertsonen sare bat identifikatu. - Euskadiko 251 udalekin harremanetan jarri da eta uneren batean Irisgarritasun Plan bat egin duten 228 udal identifikatu dira. - Hala ere, plan gehienak zaharrak dira eta ez dira eguneratu; beraz, 59 baino ez dira indarrean dauden lau urteko planak, azken lau urteetan onartu baitira, 2018tik aurrera. - Informazio hori biltzeko, zeregin hauek egin dira: ✓ Mailinga udal guztiei ✓ Informazio-webinarra ✓ Udal guztiekin telefonoz harremanetan jartzea (hiru dei txanda) ✓ Udalei fitxak itzultzea, baliozkotu ditzaten ✓ Eusko Jaurlaritzatik eta foru-aldundietatik jasotako diru-laguntzen azterketa - Egiaztatu da udalek irisgarritasuna hobetzeko jarduerak egiten dituztela, batez ere oztopo arkitektonikoak kentzeari buruzkoak, baina, oro har, ez dute jarduketak gauzatzearen jarraipenik egiten, irisgarritasuna hobetzeko esleitutako zenbatekoak eta irisgarritasun-planen gauzatze-maila identifikatzeko. - Irisgarritasuna hobetzeko jarduketak obra handiagoetan sartzen dira, eta, gehienetan, kontsultatutako udaletako langileak ez dira gai izan (edo lan handia izango litzateke) berariaz irisgarritasunera bideratutako zenbatekoak bereizteko. - Horregatik, udal gutxiak ematen dute irisgarritasun-planen gauzatze-mailari buruzko informazioa. - Eusko Jaurlaritzako sailei dagokienez, lege ez dute beren planik eduki beharrik, baina Ekintza Planak hala eskatzen du. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren Ekintza Planaren helburuak betetzen lagundu behar		

3. EKINTZA PLANEAN JASOTAKO EKINTZEN AURRERAPEN- ETA EZARPEN-MAILA

dute, plan hori hainbat Planen Plan gisa ulertzen baita. Beraz, gutxienez, irisgarritasun unibertsalaren arloan egiten dituzten jardueren erregistro bat izan beharko lukete. - Erakunde edo entitate publiko batzuek berezko Irisgarritasun Plana dutela egiaztatu da, hala nola ETSk (Euskal Trenbide Sarea). - Bestalde, Foru Aldundietan ez da Irisgarritasun Planik identifikatu. - Foru Aldundietako gizarte-arloek desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko planak ezartzeko lan egin dute, baina ez dago arlo guztietarako eta herritar guztientzako irisgarritasuna zeharka lantzen duen planik. - Irisgarritasun-planen kopurua eta horien kalitatea eta homogeneousutasuna areagotzeko, guztiak Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integralak (IUPI) izan daitezen, gida bat landu da, erakundeei Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integralak egiten eta ezartzen laguntzeko. Lanketa horrek 4 lan-saiotan garatu den Ponentzia formatuko partaidetza-prozesua jarraitu du. Prozesu horretan, honako hauek egin dira: ✓ ponentzien funtzionamendurako protokolo bat, ✓ saioak egiteko laguntza-dokumentuak eta ✓ Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integralak egiteko gida dokumentua - Informazioa eskuragarri duten Planen guztizko aurrekontua 430,8 milioi eurokoa da. - Gainera, gauzatutako aurrekontuari buruzko informazioa eman duten planen aurrekontu osoa 282,2 milioi eurokoa da aurreikusitako aurrekontuari dagokionez, eta gauzatutako aurrekontua 63,1 milioi eurokoa izan da. Ondorioz, % 22,4 gauzatu da.	
ADIERAZLEAK	
Erakunde publikoen lau urteko irisgarritasun-programen kopurua	228
eta guztizkoarekiko %	% 91
Erakunde publikoetako lau urteko planetan aurreikusitako urteko aurrekontua	430.834.617 €
Gauzatutako aurrekontua adierazi duten udalen aurrekontua	282.247.824 €
Irisgarritasunaren arloan gauzatutako aurrekontua	63.132.803 €
Betetze-mailaren ehunekoa erakunde horren lau urteko programarekiko	% 22,4
Irisgarritasun Planetatik kanpo gauzatutako aurrekontua	21,6 M€

d.1) Irisgarritasuna hobetzeko Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzak

Eusko Jaurlaritzak, 20 urtean (2001-2020), 6 milioi euro baino gehiago eman dizkie EAEko udalei Irisgarritasun Planak egiteko, eta 56,24 milioi euro baino gehiago udalerriko irisgarritasuna hobetzeko obrak egiteko: guztira, 62,3 milioi euro 2001-2020 aldian. Hau da, Eusko Jaurlaritzak urtean 6,2 milioi euro baino gehiagoko ekarpena egin du udalerrien irisgarritasuna hobetzeko.

Nabarmentzekoa da EAEko udal guztiek laguntzaren bat jaso dutela azken 20 urteetan, Irisgarritasun Plana egiteko edo eguneratzeko, edo/eta plan horretan jasotako obrak egiteko. Laguntza horiek, funtsean, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren diru-laguntzen aginduen bidez bideratu dira.


3. EKINTZA PLANEAN JASOTAKO EKINTZEN AURRERAPEN- ETA EZARPEN-MAILA

3.3 taula Eusko Jaurlaritzak udalei Irigarritasun Planak eta irigarritasuna hobetzeko Obrak egiteko emandako diru-laguntzen zenbatekoa

Lurralde Historikoa	EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAK, GUIZTIRA (2001-2020)		
	PLANAK	OBRAK	GUZTIRA
Araba	1.907.658	8.376.818	10.284.476
Bizkaia	2.554.363	20.169.803	22.724.166
Gipuzkoa	1.719.773	27.690.303	29.410.076
EAE, guztira	6.099.593	56.236.924	62.336.517

Laguntza horien lurralde banaketari dagokionez, Bizkaian Irigarritasun Planak egiteko diru-laguntzen % 41 metatzen dira, Araban % 31 eta Gipuzkoan % 28. Obrak egiteko laguntzei dagokienez, Gipuzkoak diru-laguntzen erdia inguru jaso ditu (guztizkoaren % 49), gero Bizkaia (% 36) eta, azkenik, Arabak (% 15).

3.2 grafikoa Eusko Jaurlaritzaren irigarritasunerako laguntzak Lurralde Historikoen arabera banatua



3.4 taula Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzen bilakaera


Lurralde Historikoa	2001-2016		2018		2019		2020	
	Planak	Obrak	Planak	Obrak	Planak	Obrak	Planak	Obrak
Araba	1.684.354	7.182.718	9.1113	538.656	83.666	315.523	48.525	339.921
Bizkaia	2.152.950	15.232.274	107.629	2.025.939	225.640	1.810.288	68.144	1.101.302
Gipuzkoa	1.387.505	18.720.400	174.767	3.177.915	56.693	3.439.563	100.808	2.352.425
EAE, guztira	5.224.609	41.135.392	291.509	5.742.510	365.999	5.565.374	217.476	3.793.648

d.2) Euskadiko udalen Irigarritasun Planak

Aurreko atalean ikusi den bezala, Eusko Jaurlaritzaren laguntzek udalen Irigarritasun Planen bolumen handia egiten lagundu dute. Horrela, Euskadiko 251 udaletatik 228k (guztizkoaren % 91) Irigarritasun Plan bat egin dute noizbait azken 20 urteetan. Hala ere, eskura dagoen informazioa kontuan hartuta, plan horietako asko zaharrak dira eta ez dira eguneratu; beraz, 2018 eta 2022 bitartean egindako 59 Irigarritasun Plan baino ez dira kontabilizatu.

3. EKINTZA PLANEAN JASOTAKO EKINTZEN AURRERAPEN- ETA EZARPEN-MAILA


3.3 grafikoa Euskal Autonomia Erkidegoko udalen Irigarritasun Planak



3.5 taula Irigarritasun Planak lurralde historikoen arabera

Lurralde Historikoa	Euskadiko Udalak GUZTIRA	Irigarritasun Plana duten Udalak	
		Kopurua	Guztizkoarekiko %
Araba	51	45	% 88,2
Bizkaia	113	102	% 90,3
Gipuzkoa	87	81	% 93,1
Euskadi guztira	251	228	% 90,8

3.4 grafikoa Irigarritasun planen banaketa, plana onartu zen urtearen arabera




Udal gehienek aurreikusitako aurrekontuaren datua ematen dute, baina ez gauzatutako aurrekontuarena. Beren esanetan, oso zaila da kalkulatzea, ez baitute egindako jardueren jarraipenik egiten, edo jardura horiek garrantzi handiagoko obretan sartuta daude, irismen handiagorekin, eta oso zaila egiten zaie irigarritasunerako erabilitako zenbatekoa zehaztea. Kasu batzuetan, gauzatze portzentajeen zenbatespenak eskaintzen dituzte.

Informazio hori eman duten 178 Planetan jasotako obren zenbateko osoa 430,8 milioi eurokoa da. Ondoko grafikoan ikus daiteke zenbateko hori hainbat urtetan banatuta.

3. EKINTZA PLANEAN JASOTAKO EKINTZEN AURRERAPEN- ETA EZARPEN-MAILA

3.5 grafikoa Irigarritasun Planetan aurreikusitako aurrekontuen zenbateko osoa (milioi euro), plana onartu zen urtearen arabera




Hurrengo taulan, urtez urte onartutako planen kopurua, urte bakoitzean aurreikusitako eta gauzatutako aurrekontuen zenbatekoa eta bi datuak eman dituzten 76 udalak kontuan hartuta, egindako gauzatzearen ehunekoa azaltzen dira, Irigarritasun Planetan aurreikusitako aurrekontua eta gauzatutako aurrekontua kontuan hartuta. Datu horien arabera, aurrekontuaren gauzatze portzentajea % 22,4koa da.

3.6 taula Irigarritasun Planetan aurreikusitako aurrekontuen eta gauzatutako aurrekontuen zenbateko osoa

Plana onartu zen urtea	Planak guztira		Gauzatutako aurrekontuaren datuak eman dituzten Planak			
	Planen kopurua	Aurreikusitako aurrekontuen zenbateko osoa	Planen kopurua	Aurreikusitako aurrekontuen zenbateko osoa	Gauzatutako aurrekontuen zenbateko osoa	Gauzatzearen %
2002	10	3.366.806	0	--	--	--
2003	7	10.393.288	1	2.611.736	2.000.000	76,6%
2004	10	5.121.419	2	1.827.495	582.013	31,8%
2005	1	--	0	--	--	--
2006	17	11.593.238	5	5.673.715	3.019.861	53,2%
2007	8	2.776.394	2	1.399.188	977.222	69,8%
2008	7	13.024.690	3	7.748.888	2.592.153	33,5%
2009	9	26.391.530	6	22.821.541	8.571.895	37,6%
2010	4	3.370.668	2	3.370.668	2.205.501	65,4%
2011	3	16.516.876	2	15.971.884	6.079.793	38,1%
2012	6	17.540.831	3	17.540.831	3.192.416	18,2%
2013	3	18.178.995	1	8.650.673	2.162.668	25,0%
2014	11	26.427.576	9	26.427.576	9.010.882	34,1%
2015	7	2.616.293	2	2.616.293	1.266.046	48,4%
2016	14	40.173.865	6	17.158.043	3.048.645	17,8%
2017	5	54.586.847	4	44.358.897	4.463.740	10,1%
2018	12	11.316.098	4	5.557.303	2.839.258	51,1%
2019	16	43.561.472	9	39.676.956	8.003.184	20,2%
2020	15	49.147.241	7	24.665.814	1.393.199	5,6%
2021	13	42.058.018	7	17.206.968	1.724.327	10,0%
2022	4	32.672.472	1	16.963.356	--	0,0%
GUZTIRA	178	430.834.617	76	282.247.824	63.132.803	22,4%

3. EKINTZA PLANEAN JASOTAKO EKINTZEN AURRERAPEN- ETA EZARPEN-MAILA


3.6 grafikoa Irigarritasun Planen gauzatze ehunekoa



Aurreikusitako aurrekontua eta gauzatutakoa adierazi duten udalak bakarrik sartzen dira.


Bestalde, 58 udalek adierazi dute irigarritasuna hobetzeko ekintza gehigarriak egiten ari direla, Irigarritasun Planetan sartuta ez daudenak. Horietatik, 31 udalek jarduera horien zenbatekoa zehaztu dute, 23,62 milioi euro guztira.

3.7 grafikoa Irigarritasuna hobetzeko jarduerak garatu al dira, lau urteko Irigarritasun Planetan sartuta ez daudenak?



Bestalde, 36 udalek adierazi dute urteko partida bat dutela udalerriko irigarritasuna hobetzeko, baina soilik 32k adierazi dute 2022an gauzatutako aurrekontuaren zenbatekoa, guztira 14,13 milioi euro. Gainera, beste 11 udalek diote ez dutela urteko aurrekonturik esleituta, baina 2022an egindako zenbatekoa zehaztu dute (6,36 milioi euro guztira). Beraz, EAEko 43 udalek 20,5 milioi euro erabili dituzte 2022an beren udalerrietako irigarritasuna hobetzeko.

3.8 grafikoa Irigarritasuna hobetzeko urteko aurrekonturik bada?



3. EKINTZA PLANEAN JASOTAKO EKINTZEN AURRERAPEN- ETA EZARPEN-MAILA

e) 5. ekintza

5. ekintza Irisgarritasunaren Euskal Behatokia sortzea		
TALDEA	1. BEHARREZKO EGITURA	
ARDATZA	EGITURA. 1. GOBERNANTZA: IRISGARritasunaren KUDEAKETA	
JARDUERA-ILDOA	Egitura 1.2. Euskadiko irisgarritasunari buruzko informazioa eta ezagutza sortzea eta partekatzea	
- Garraio publikoaren arloan, Eusko Jaurlaritzak (Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila) trenbideko garraioan baino ez du eskumena, errepideetako garraioa foru-aldundien edo udalen esku baitago. - Euskal Trenbide Sarea (ETS) eta Euskotren dira irisgarritasunaren arloan erantzukizuna dutenak. - Euskadiko Garraio Agintaritzaren idazkari tekniko gisa, Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak irisgarritasunari buruzko ponentziak (lantaldeak) antolatu zituen. Talde horietan parte hartu zuten ISEKek eta desgaitasuna duten pertsonen ordezkari diren erakundeek, eta bertatik bertara jaso ahal izan ziren garraioaren sektoreko beharrak eta zailtasunak. Esperientzia oso modu positiboan baloratzen da. Emaizten dokumentu bat egin zen, eta ISEKekin partekatu zen.	

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

ETS (Euskal Trenbide Sarea)	
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA	
Irisgarritasunaren arduraduna	
I+G+b Kalitate eta Ingurumen Zuzendaria	
Irisgarritasun planik ba al da?	Bai
Plana onartu zen urtea (formularioa)	2019
Aurreikusitako aurrekontua	-
Gauzatutako aurrekontua	-
Irisgarritasun unibertsala sustatzeko berariazko partida ekonomikorik ba al da?	Bai
2022ko aurrekontua	1.924.119,03 €
Bestelako jarduerak	
Irisgarritasuna hobetzeko jarduerarik egin al da?	Bai
Herritarrentzako ekitaldiak, kanpainak, partaidetza prozesuak... antolatu dira?	Bai
Irisgarritasun-irizpideak kontuan hartu dira?	Bai
Irisgarritasunari buruzko prestakuntza-ikastarorik eman al zaie erakundeko langileei?	Bai
Arreta irisgarria sustatzeko neurririk txertatu al da?	Bai
Irisgarritasun-araudi eta -irizpideei buruzko gida/txosten/eskulibururik egin al da?	Bai
Erabiltzaileek antzemandako beharrak jasotzeko sistemarik jarri al da martxan?	Bai
Ekintzen ezarpenean egindako aurrerapenak	
- Maiatzaren 21eko 6/2004 Legearen arabera, ETS (Euskal Trenbide Sarea) da Euskadiko trenbide-sistema garatzeko arduraduna. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren trenbide-azpiegituren elkarreragingarritasunaz ere arduratzen da, eta erabiltzaileen interesak babestu behar ditu, batez ere desgaitasuna duten edo mugikortasun murriztua duten pertsonen kasuan, trenbide-garraioko zerbitzuak kalitate-baldintza egokietan eskuratzeko duten eskubidea bermatuz. - ETS-k tren-azpiegiturak kudeatzen ditu, eta bere eginkizunen artean, besteak beste, geltokien egokitzapena dago. - ETS-k Irisgarritasun Plan bat du, 2019an onartua. - Gainera, urtero berariazko partida ekonomiko bat esleitzen zaio irisgarritasuna sustatzeari, eta 2022an 1.924.119,03 eurokoa izan zen. - Arreta irisgarria bermatzeko neurriei dagokienez, erabilgarritasunean, hizkuntza argian eta irakurketa errazean oinarritutako sistemak txertatu dira, bai aurrez aurreko arretan, bai telefono bidezko arretan. Halaber, entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzako begizta induktiboko sistema bat instalatu da, eta ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzako Navilens sistema gidatua. - ETS-k euskal trenbide-sareko geltokiak genero ikuspegiaren arabera diseinatzeko irizpideen Liburu Zuria egin du, irisgarritasun-irizpideei buruzko gida edo eskuliburu gisa balio duena. - Erakundeko teknikariei irisgarritasunari buruzko prestakuntza ere eman zaie. Zehazki, 2 pertsona trebatu dira hizkuntza argian eta irakurketa errazean, bai eta ekipamendu eta espazio fisikoen erabileran ere. - Irisgarritasun Plana idazteko diagnostiko-prozesu bat egin da, mugikortasunari buruzko lantaldeak antolatuz (inguruak, geltokiak eta geralekuak, ibilgailuak, informazioa, erabiltzaileentzako arreta, etab.). Prozesu horrek, geltokietarako sarbidea hobetzeko balio izan du, besteak beste.	

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

- Gainera, herritarrei zuzendutako ekitaldi bat egin da, irisgarritasun-irizpideei jarraiki antolatu dena: bereziki, irisgarritasun fisikoaren eta irisgarritasun kognitiboaren irizpideak hartu dira kontuan (irakurketa errazeko dokumentazioa).
- Erabiltzaileek antzemandako beharrak eta gabeziak jasotzeko, geltoki guztietan erreklamazio-orriak daude.

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A. (Euskotren)	
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA	
Irisgarritasunaren arduraduna	
Zuzendari Teknikoa eta Eragiketetakoa	
Irisgarritasun planik ba al da?	Ez
Plana onartu zen urtea (formularioa)	-
Aurreikusitako aurrekontua	-
Gauzatutako aurrekontua	-
Irisgarritasun unibertsala sustatzeko berariazko partida ekonomikorik ba al da?	Ez
2022ko aurrekontua	-
Bestelako jarduerak	
Irisgarritasuna hobetzeko jarduerarik egin al da?	Bai
Herritarrentzako ekitaldiak, kanpainak, partaidetza prozesuak... antolatu dira?	Ez
Irisgarritasun-irizpideak kontuan hartu dira?	-
Irisgarritasunari buruzko prestakuntza-ikastarorik eman al zaie erakundeko langileei?	Ez
Arreta irisgarria sustatzeko neurriak txertatu al da?	Ez
Irisgarritasun-araudi eta -irizpideei buruzko gida/txosten/eskulibururik egin al da?	Ez
Erabiltzaileek antzemandako beharrak jasotzeko sistemarik jarri al da martxan?	Ez
Ekintzen ezarpenean egindako aurrerapenak	
- Euskotrenek herritarren mugikortasun-beharrak asetzeko zerbitzu publikoa eskaintzen du. Zehazki, Euskotrenek garraio-ibilgailuak kudeatzen ditu. - Irisgarritasuna hobetzeko jarduerak egin dira, baina ez dago esleitutako aurrekontu edo kostu zehatzik, jarduketa horiek proiektu handiago baten barruan baitaude.	

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

ETXEBIZITZA SAILBURUORDETZA	
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA	
Irisgarritasunaren arduraduna	
EIT Eraikinen Ikuskapen Teknikoen eta Irisgarritasunaren Sustapenaren Arloko arduradun teknikoa	
Irisgarritasun planik ba al da?	Ez
Plana onartu zen urtea (formularioa)	-
Aurreikusitako aurrekontua	-
Gauzatutako aurrekontua	-
Irisgarritasun unibertsala sustatzeko berariazko partida ekonomikorik ba al da?	Bai
2022ko aurrekontua	Ikusi xehetasuna
Bestelako jarduerak	
Irisgarritasuna hobetzeko jarduerarik egin al da?	Bai
Herritarrentzako ekitaldiak, kanpainak, partaidetza prozesuak... antolatu dira?	Bai
Irisgarritasun-irizpideak kontuan hartu dira?	Bai
Irisgarritasunari buruzko prestakuntza-ikastarorik eman al zaie erakundeko langileei?	Bai
Arreta irisgarria sustatzeko neurriak txertatu al da?	Bai
Irisgarritasun-araudi eta -irizpideei buruzko gida/txosten/eskulibururik egin al da?	Bai
Erabiltzaileek antzemandako beharrak jasotzeko sistemarik jarri al da martxan?	Bai
Ekintzen ezarpenean egindako aurrerapenak	
2021-2023ko Etxebizitza Plan Zuzentzailearen ildo estrategikoetako bat irisgarritasuna sustatzea da. - Hiri-inguruneen irisgarritasuna hobetzea, irisgarritasun planak idazteko eta obrak egiteko finantza-neurrien bidez (ikus informazioa lurzorua kudeaketaren atalean). - Lehendik dagoen eraikuntzaren irisgarritasuna hobetzea, etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko programei erantzuten dieten finantza-neurrien bidez (ikus informazioa SEPYP atalean). - ALOKABIDE sozietate publikoak garatutako Alokairuko parke publikoaren Trantsizio Energetikorako eta Irisgarritasunerako Plan Integrala (Zero Plana) ezartzea. - Etxebizitza irisgarriaren zigilua diseinatzea (Eraikune Eraikuntzaren Klusterrarekin egindako hitzarmenaren barruan). Diseinu-prozesuan dago. - Irisgarritasun-baldintzak txertatzea etxebizitzaren diseinuan kontuan hartu beharreko bizigarritasun-eskakizunen barruan (80/2022 DEKRETUA, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-araudiak arautzen dituen), eta 2022ko azaroaren 30ean indarrean sartu zen. EAEko gutxieneko bizigarritasun-baldintzei buruzko Dekretua aplikatzeko gida argitaratzea. 2021eko abenduaren 21eko Agindua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kudeaketa-sistemak ezartzeko, iraunkortasuna sustatzeko eta berrikuntzari laguntzeko laguntzak (Eraikal 2022 programa) arautu eta 2022ko ekitaldirako deialdia egiten duena. Laguntza-programa honen 1. lerroaren barruan, bizitegi-eraikuntzaren irisgarritasuna hobetzeko eta soluzio domotikoak ezartzeko proiektuak sartzen dira, bai obra berrian, bai lehendik dagoenean.	


4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

- Irisgarritasunaren arloan jasotako informazioa kudeatzea, Euskoregite Eraikinen Ikuskapen Teknikoen bidez, 50 urtetik gorako eraikinetan edo birgaitzeko laguntzen onuradun izango diren eraikinetan.

Erregistroan argitaratutako 54.853 EIT guztietatik, ikusten da ehuneko handi batek (% 76,95) adierazten duela higiezinak ez duela irisgarritasuna ebatzita, eta horrek esan nahi du ez dagoela ibilbide irisgarri bide publikotik etxebizitzetara bere espazio komunitik iristeko.

Azpimarratu behar da maiatzaren 20ko 80/2014 Dekretua (gaur egun uztailaren 24ko 117/2018 Dekretuak indargabetua) indarrean sartu aurretik idatzitako EITek ez dutela irisgarritasunari buruzko informaziorik, une hartan ez baitzen nahitaez sartu behar, eta, beraz, irisgarritasunari buruzko erreferentziarik gabeko EITen kopurua oso handia da.

		EIT kopurua	%	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
EBATZITAKO IRISGARRITASUNA	Bai	4.666	8,50%	1.272	2.125	1.269
	Ez	42.207	76,95%	6.362	21.401	14.444
	Adierazi gabe	7.980	14,55%	760	5.014	2.206
	GUZTIRA	54.853	100,00%	8.394	28.540	17.919



■ Irisg. Konpondua = 8,5%

■ Irisg. Ez Konpondua = 76,95%

■ Irisg. Adierazi Gabe = 14,55%

- Irisgarritasunarekin zerikusia duten barneko eta kanpoko kontsultei erantzutea (266 kontsulta erantzun dira)
- Udalek bidalitako salbuespenen kudeaketa (131 espediente)
- Prestakuntza-jardunaldiak ematea, hainbat eragilek antolatutako formatu presentzial eta birtualean.
- Euskadiko Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoak sustatutako Euskadiko Irisgarritasun Unibertsaleko Ikastaroa (2. edizioa) diseinatzen laguntzea.
- Sustapen libreko etxebizitzetan erreserbatutako elementuak desfektatzeko 17 ebazpen ematea, sustatzaileek hala eskatuta.
- ISEK Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilura joatea. Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Ekintza Planaren jarraipena eta koordinazioa.

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

Lurzoruaren kudeaketa

2022. URTEKO DATUAK

UDALENTZAKO ETA ERAKUNDE TXIKIENTZAKO IRISGARRITASUNERAKO DIRULAGUNTZAK
2020ko DEIALDIA

Inbertsioak

	Emandako dirulaguntza	2020ko dirulaguntza	2021eko dirulaguntza	2022ko dirulaguntza
UDALAK GUZTIRA	8.459.725,97	203.593,06	2.070.399,86	2.001.460,69
IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEAK GUZTIRA	26.216,40	1.248,39	12.037,65	12.930,36
			2022 GUZTIRA	2.014.391,05

Diruz lagundutako jardueren kopurua

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA	
IRISGARRITASUN PLANAK	5	7	6	18	
OBRAK	16	22	30	68	
	GUZTIRA	21	29	36	86

Txurdinagako (Bilbo) 316.01 EUren urbanizazioa egin da, eta bertan:

- Oinezkoentzako pasabide berri bat egin da, garaia eta semaforizatu, etxebizitza berrietara iristeko oinezkoentzako bidea murrizten duena.
- Lehendik dagoen eskailera bat baldosa podotalez seinaleztatu da.
- Haurrentzako jolas egokituak instalatu dira.
 - Integrazio mistoko kolunpioa, eserleku inklusibokoa arnes abailgarri eta zurrunarekin.
 - Habi-kolunpioa
 - “Pasadizo Sekretua” izeneko parkea, gorpil-aulkian dauden haurrentzat irisgarria dena.

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

Azterlan, Plangintza eta Aurrekontu Zerbitzua

Etxebizitzetan eta komunitateetan irisgarritasuna hobetzeko diru-laguntzak:

- Desgaitasuna edo/eta mendekotasuna duten adinekoentzako etxebizitzetan irisgarritasunerako laguntzak (Next funtsak): 2023ko aurrekontua, 2.292.705,26 €.
- Etxebizitzak birgaitzeko diru-laguntzak: urte anitzeko 2023ko aurrekontua, 29.000.000 €-koa, egitura, inguratzailer, irisgarritasun eta hirigintza egokitzapeneko birgaitze-obrak egiteko. Aurrekontua ez da obra motaren arabera bereizten, baina bai bere egikaritzea.
- 2022an sustapenak esleitzeko prozesuak:

Etxebizitzak guztira	Mugimen-urritasuna dutenentzako erreserbatutako etxebizitzak	Errekurtsoa jarri aurreko eskaerak
70 BOE / V.P.O.	3	54
14 SOZIALAK / SOCIALES	1	6
36 BOE / V.P.O.	1	0
92 BOE / V.P.O.	2	40
21 BOE / V.P.O.	3	52
11 BOE / V.P.O.	2	75
120 BOE / V.P.O.	5	16

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

VISESA sozietate publikoa, Etxebizitza eta Lurra, Euskadi

EGOKITUTAKO ETXEBIZITZAK

CALIFICACIONES PROV. /VIV. INICIADAS VISESA 2022	TIPOLOGIA	nº VIV. PROMOCION	Nº VIV ADAPTADAS
B-047 Bolueta R-3	VPOa	144	6
B-080 Venancios	VPOa	54	3
G-056 Tolosa	VPOa	111	5
G-074 Zarautz Salberdin	VPOa	91	4
G-075 Hondarribi Presa I	VPOa	66	3
G-072 Eibar	VPOa	36	2
TOTAL CALIFICACIONES EN ALQUILER		502	23
TOTAL CALIFICACIONES EN VENTA		0	0
TOT. CALIF. PROVISIONALES 2022		502	23

VIV. CON INICIO ESCRITURACION VISESA 2022	TIPOLOGIA	nº VIV. PROMOCION	Nº VIV ADAPTADAS
G-066 Azkoitia Floreaga	VS	14	1
B-125 Getxo Iturribarri	VS	91	4
TOT. ESCRITURACIONES VIV. PROTECION SOCIAL		105	
G-066 Azkoitia Floreaga	VPO	16	1
B-058 Zorrotzaurre SI2	VPT	104	5
TOT. ESCRITURACIONES EN VENTA		120	
TOT. VIVIENDAS CON INICIO DE ESCRITURACIÓN EN EL 2022		225	10

OTRAS ACTUACIONES PARA ADAPTACIÓN DE VIVIENDAS VISESA 2022	TIPOLOGIA	Nº VIV ADAPTADAS
B-095 Ortuella, adaptación baño	VPT	2
B-058 Bilbao – Zorrotzaurre, adaptación tendedero	VS	1
TOT. VIVIENDAS CON INICIO DE ESCRITURACIÓN EN EL 2022		3

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

VISESA sozietate publikoa, Etxebizitza eta Lurra, Euskadi

WEBGUNEAREN IRISGARritasuna

Ataria garatzeko, kontuan hartu dira Europako EN 301 549 arauak («Irisgarritasun-baldintza egokiak IKT produktuak eta zerbitzuak publikoki kontratatatzeko European) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urriaren 26ko 2016/2102 (EB) Zuzentarauak (Estatuko legeriara ekarriko da) ezarritako betekizunak, webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasunari buruzkoak. Edukiek eta orriek WAIk (Web Accessibility Initiative) ezarritako Web 2.0 edukien erabilerraztasun-jarraibideak (WCAG 2.0) betetzen dituzte.

	Resultado
Puntuación media del sitio web	9.39
Nivel de adecuación estimado	AA
Situación de cumplimiento estimada	Parcialmente conforme

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

Osakidetza	
OSASUN SAILA	
Irisgarritasunaren arduraduna	
Azpiegituren Zuzendariordetzako Teknikaria	
Irisgarritasun planik ba al da?	Ez
Plana onartu zen urtea (formularioa)	-
Aurreikusitako aurrekontua	-
Gauzatutako aurrekontua	-
Irisgarritasun unibertsala sustatzeko berariazko partida ekonomikorik ba al da?	Bai
2022ko aurrekontua	1.000.000€
Bestelako jarduerak	
Irisgarritasuna hobetzeko jarduerarik egin al da?	Bai
Herritarrentzako ekitaldiak, kanpainak, partaidetza prozesuak... antolatu dira?	Ez
Irisgarritasun-irizpideak kontuan hartu dira?	-
Irisgarritasunari buruzko prestakuntza-ikastarorik eman al zaie erakundeko langileei?	Ez
Arreta irisgarria sustatzeko neurriak txertatu al da?	Ez
Irisgarritasun-araudi eta -irizpideei buruzko gida/txosten/eskulibururik egin al da?	Bai
Erabiltzaileek antzemandako beharrak jasotzeko sistemarik jarri al da martxan?	Ez
Ekintzen ezarpenean egindako aurrerapenak	
- Osakidetza ez du irisgarritasun planik; hala ere, urtero irisgarritasun unibertsala bultzatzen duten jarduerak ezartzen dira. - Hain zuzen ere, Osakidetza urtean 1.000.000 €-ko aurrekontu-partida bat du irisgarritasuna hobetzeko, 2018tik esleitu dena. Urteko aurrekontu-partida horren jatorria, Arartekoak 2017an argitaratutako EAEko ospitaleetako irisgarritasun-diagnostikotik dator, eta dokumentu hori kritikoa izan zen instalazio batzuen irisgarritasun-baldintzekin. - Bestalde, Osakidetza agindu bat argitaratzen du urtero tokiko erakundeei laguntzak esleitzeko helburuarekin zentroak egokitzeko (oin berriko obrak, handitze-lanak, osasun-zentroen edo kontsultategien eraberritze-lanak) eta ekipamenduak eta altzariak jartzeko. 2022an, programaren zenbateko osoa 500.000 eurokoa izan zen. - Osakidetza irisgarritasun-irizpideekin lotutako eskuliburu edo gida txiki bat prestatu du, "Materialen memoria" izenekoa. Materialei buruzko erreferentziarako informazio-dokumentu bat da, mantentze-lanetako langileei beren obra eta berrikuntzetan laguntzeko eta aholkuak emateko egina (adibidez, tiratzaileei eta eskulekuei, estaldurei, koloreei, tamainei, distantziei eta abarrei buruz). - Gainera, EAEko osasun-zentroetako irisgarritasun-diagnostikoaren zati bat egin da, zerbixeko minbizia bahetzeko programa dela eta. Minbizia prebenitzeko programa hau ezar daitekeen osasun-zentro guztien irisgarritasun-egoera aztertzen hasi da. 2019-20an, Gipuzkoako eta Arabako zentroen diagnostikoa egin zen, baina Bizkaian oraindik egiteko dago. - Azkenik, esan beharra dago irisgarritasuna ez dagoela Osakidetza integratuta. Osakidetzaaren organigrama ESlen (Erakunde Sanitario Integratuen) inguruan egituratzen da, eta horien artean irisgarritasunaren arloan inplikazio handiagoa edo txikiagoa egon liteke.	

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritza	
SEGURTASUN SAILA	
Irisgarritasunaren arduraduna	
Kalitatea kudeatzeko prozesuak ezartzeko aholkularia	
Irisgarritasun planik ba al da?	Ez
Plana onartu zen urtea (formularioa)	-
Aurreikusitako aurrekontua	-
Gauzatutako aurrekontua	-
Irisgarritasun unibertsala sustatzeko berariazko partida ekonomikorik ba al da?	Ez
2022ko aurrekontua	-
Bestelako jarduerak	
Irisgarritasuna hobetzeko jarduerarik egin al da?	Bai
Herritarrentzako ekitaldiak, kanpainak, partaidetza prozesuak... antolatu dira?	Ez
Irisgarritasun-irizpideak kontuan hartu dira?	-
Irisgarritasunari buruzko prestakuntza-ikastarorik eman al zaie erakundeko langileei?	Ez
Arreta irisgarria sustatzeko neurririk txertatu al da?	Bai
Irisgarritasun-araudi eta -irizpideei buruzko gida/txosten/eskulibururik egin al da?	Ez
Erabiltzaileek antzemandako beharrak jasotzeko sistemarik jarri al da martxan?	Bai
Ekintzen ezarpenean egindako aurrerapenak	
- Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritza irisgarritasun fisikoaren arduraduna da. Beraz, Zuzendaritza honen ardura Ertzaintzak erabiltzen dituen eraikinak eta lokalak mantentzea eta kudeatzea da. - Irisgarritasun-planik ez badago ere, irisgarritasuna hobetzeko ekintzak egin dira 2021-2022 aldian, 1.953.800 euroko aurrekontuarekin: - Baliabide Orokorren eraikineraz sartzeko arrapala. 13.000 €-ko aurrekontua - Polizia-etxeetako sarbidean hesiak kentzea. Eragindako zentroak: Hernani, Basauri, Erandio, Getxo. Aurrekontua 1.700.000 € - Irisgarritasun-proiektuak. Eragindako zentroak. Muskiz, Errearteria, Txurdinaga, Galdakao, Basauri, Audio, Zarautz, Durango, Guardia. Aurrekontua: 150.000 €. - Informazio-pantailak itxaronguneetan. Eragindako zentroak: Basauri, Abandoko HAB, Loiuko aireportuko HAB. Aurrekontua: 6.000 € - Itzultzaileentzako informazio-pantailak eta bideokonferentziak, genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko geletan. Eragindako zentroak: Basauri, Bilbo, Gasteiz, Donostia, Irun, Errearteria, Hernani, Bergara, Eibar, Barakaldo, Portugalete, Getxo. Aurrekontua: 20.000 € - Babes-pantailak kentzea HABen nortasunen erregistro-eremuan. Eragindako zentroak: Zabalburuko HAB, aireportuko HAB, Abandoko HAB, Erandio, Getxo, Arrasate, Tolosa, Ondarroa. Aurrekontua: 40.000 €	

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

7. HABen kartel argitsu korporatiboak, banderolan edo kanpoko zutoinean, herritarrei arreta emateko bulegoak (HAB) kokatuta dauden hiri-bilbearen barruan ikusgarritasuna hobetzeko. Eragindako zentroak: 14 HAB. 20.000 €-ko aurrekontua.
 8. Ertzaintzaren App-eko ordutegiei eta informazioari buruzko idazkunak. Eragindako zentroak: Plentziako HAB, Txurdinagako HAB, María Díaz de Haro HAB. Aurrekontua: 800 €.
 9. Ertzain-etxeetan kexa eta iradokizunetarako postontziak jartzea. Aurrekontua. 4.000 €
- 2022an ez da irisgarritasunaren diagnostikorik egin, baina 2019an diagnostiko bat egin zen, eta kanpoko enpresa bat kontratatu zen horretarako. Zehazki, eraikinen irisgarritasunari buruzko diagnostiko bat egin zen, eta konpondu nahi izan diren gabezia batzuk antzeman ziren.
 - Berriki, herritarrentzako arreta irisgarria sustatzeko neurriak sartu dira, hizkuntza argian oinarrituta, letra handiagoko informazioa duten kartelak eta QR kodeak berritzeari esker, Ertzaintzaren App-arekin sare sozialetan konektatzen direnak.
 - Erabiltzaileek antzemandako beharrak edo/eta gabeziak jasotzeko, kexa eta iradokizunen postontziak daude ertzain etxeetan.

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

Lanbide	
LAN ETA ENPLEGU SAILA	
Irisgarritasunaren arduraduna	
Lanbideko Zerbitzu Orokorretako zuzendaria	
Irisgarritasun planik ba al da?	Ez
Plana onartu zen urtea (formularioa)	-
Aurreikusitako aurrekontua	-
Gauzatutako aurrekontua	-
Irisgarritasun unibertsala sustatzeko berariazko partida ekonomikorik ba al da?	Ez
2022ko aurrekontua	-
Bestelako jarduerak	
Irisgarritasuna hobetzeko jarduerarik egin al da?	Bai
Herritarrentzako ekitaldiak, kanpainak, partaidetza prozesuak... antolatu dira?	Bai
Irisgarritasun-irizpideak kontuan hartu dira?	Bai
Irisgarritasunari buruzko prestakuntza-ikastarorik eman al zaie erakundeko langileei?	Ez
Arreta irisgarria sustatzeko neurririk txertatu al da?	Bai
Irisgarritasun-araudi eta -irizpideei buruzko gida/txosten/eskulibururik egin al da?	Ez
Erabiltzaileek antzemandako beharrak jasotzeko sistemarik jarri al da martxan?	Ez
Ekintzen ezarpenean egindako aurrerapenak	
- Lanbidek Irisgarritasun Planik ez duen arren, irisgarritasun unibertsala sustatzeko neurri batzuk hartu dira. Gainera, etorkizunerako erronka gisa, erakunde autonomoaren Irisgarritasun Unibertsaleko Plan bat egitea aurreikusten dute. - Erabiltzaileen arretari dagokionez, laguntza protokolizatuta dago; hau da, protokolo bidez, egoera bereziren batean dauden pertsonak lagun ditzakete, irisgarritasun-premia bereziak dituztenak barne. - Era berean, Lanbidek EuskalGorrek elkarrearekin (Pertsona Gorren Elkarteen Euskal Federazioa) kontratu bat du, entzumen-desgaitasuna duten erabiltzaileei laguntza eta interpretazio-zerbitzuak eskaintzeko, bai Lanbideren orientazio-zerbitzuetan (aholkularitza, lan-orientazioa), bai prestakuntza-ikastaroetan. - Lanbiden ere irakurketa errazeko eta hizkuntza argiko irizpideak sartzen saiatu dira. Gizarteratzeko prestazioak aldatuta, eta, zehazki, diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGDS) ezartzearekin, prozesua berrikusteko lan egin da, irakurketa errazeko irizpideekin, herritarrei igorri beharreko ebazpen errazagoak sortuz, baina administrazio-prozedura betetzeari eutsiz. Proposamen horiek desberdintasunak sortu dituzte arlo juridikoarekin alderatuta. - Era berean, hainbat kartel egin dira irudi gehiago eta testu gutxiago erabiliz, ulermena errazteko eta xede-publikoari egokitzeko. - Ekitaldiak antolatzen direnean, irisgarritasun-baldintzak betetzen dituzten espazioak eta eraikinak erabiltzen dira, eta zeinu-hizkuntzako interpreteak egoten dira. - Eremu digitalean, Lanbideren webgunea eta aplikazioa (LanAPP) diseinatzeko, erabilerraztasun- eta erabilgarritasun-irizpideak hartzen dira kontuan. Zehazki, Eusko Jaurlaritzak (Gobernantza Saila) ezarritako irisgarritasun-irizpideei jarraitzen zaie.	

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

- Lanbideren eraikinei dagokienez, urteetan zehar ate automatikoak, arrapalak eta igogailu elektrikoak instalatu dira, eraikin bakoitzaren idiosinkrasiaren arabera, desgaitasunen bat duten pertsonentzako sarbideak eta ibilbideak errazteko. Azken urteotan, Lanbideren bulegoen % 60 baino gehiago berritu dira. Jakina, eraikin berriek irisgarritasunari buruzko araudia betetzen dute.

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

Zerbitzu Zuzendaritza	
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA	
Irisgarritasunaren arduraduna	
Zerbitzuetako Zuzendaria	
Irisgarritasun planik ba al da?	Ez
Plana onartu zen urtea (formularioa)	-
Aurreikusitako aurrekontua	-
Gauzatutako aurrekontua	-
Irisgarritasun unibertsala sustatzeko berariazko partida ekonomikorik ba al da?	Ez
2022ko aurrekontua	-
Bestelako jarduerak	
Irisgarritasuna hobetzeko jarduerarik egin al da?	Ez
Herritarrentzako ekitaldiak, kanpainak, partaidetza prozesuak... antolatu dira?	Ez
Irisgarritasun-irizpideak kontuan hartu dira?	-
Irisgarritasunari buruzko prestakuntza-ikastarorik eman al zaie erakundeko langileei?	Ez
Arreta irisgarria sustatzeko neurriak txertatu al da?	Bai
Irisgarritasun-araudi eta -irizpideei buruzko gida/txosten/eskulibururik egin al da?	Ez
Erabiltzaileek antzemandako beharrak jasotzeko sistemarik jarri al da martxan?	Ez
Ekintzen ezarpenean egindako aurrerapenak	
- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak ez du irisgarritasun-planik, ezta irisgarritasuna sustatzeko berariazko aurrekontu-partidarik ere. - Sailak ahalegin berezia egiten du bere webgunean online arreta irisgarria sustatzeko. Horrela, Sailaren webgunean WCAG (Web Edukiaren Erabilerraztasunerako Gidalerroak) jarraibideak betetzen direla bermatzen da, AA mailan, eduki guztiak irizpide horrekin berrikusi eta onartu baitira. - Eraikinei dagokienez, Basquetourren bulegoak, sailarenak eta Kontsumobiderenak kudeaketa zentralizatuko eraikinetan daude, eta, beraz, irisgarritasun-irizpideak betetzen direla bermatzen da.	

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

Basquetour	
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA	
Irigarritasunaren arduraduna	
Lehiakortasun, Kalitate eta Prestakuntza Arloko Teknikaria	
Irigarritasun planik ba al da?	Ez
Plana onartu zen urtea (formularioa)	-
Aurreikusitako aurrekontua	-
Gauzatutako aurrekontua	-
Irigarritasun unibertsala sustatzeko berariazko partida ekonomikorik ba al da?	Ez
2022ko aurrekontua	-
Bestelako jarduerak	
Irigarritasuna hobetzeko jarduerarik egin al da?	Bai
Herritarrentzako ekitaldiak, kanpainak, partaidetza prozesuak... antolatu dira?	Bai
Irigarritasun-irizpideak kontuan hartu dira?	Bai
Irigarritasunari buruzko prestakuntza-ikastarorik eman al zaie erakundeko langileei?	Bai
Arreta irigarria sustatzeko neurriak txertatu al da?	Bai
Irigarritasun-araudi eta -irizpideei buruzko gida/txosten/eskulibururik egin al da?	Bai
Erabiltzaileek antzemandako beharrak jasotzeko sistemarik jarri al da martxan?	Bai
Ekintzen ezarpenen egindako aurrerapenak	
Basquetourrek ez du irigarritasun plan propiorik, baina ibilbide luzea du euskal turismoaren irigarritasuna sustatzen, Euskadiko turismo-enpresa eta -helmugetan irigarritasuna bultzatuz. Hona hemen egindako ekintza nagusiak: 2005-2009 eta 2009-2012 legegintzaldietan, honako aurrerapen hauek egin ziren: 2007an hitzarmen bat sinatu zuten Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailburuordetza eta Euskalitek, Euskadiko Turismoaren Irigarritasun Eredua⁶ sortzeko. <i>"Euskadiko turismo-irigarritasunaren ereduaren helburua da Euskadiko turismo-eskaintzaren irigarritasuna hobetzea, pertsonen dibertsitate funtzionala kontuan hartuta eta irigarritasunaren kontzeptua balio erantsiaren eta bikaintasunaren faktore gisa aplikatuta; izan ere, irigarritasun-hobekuntzek ia gizarte osoari egiten diote mesede, kalitate, segurtasun eta erosotasun handiagoa ematen baitiete inguruneei eta zerbitzuei".</i> - Hasieran, 2007an Ostatuetaarako Irigarritasunaren Euskal Eredua definitu zen. Ondoren, eredua zabaltzeko egin zen: 2008an, irigarritasun-diagnostiko ugari egin ziren jatetxeetan eta turismo-bulegoetan (200 diagnostiko jatetxe, turismo-bulego eta interpretazio-zentroetan); eta 2009an, tabernetan eta kafetegietan (222 diagnostiko taberna eta kafetegietan).	

⁶ Ikusi hemen Euskadiko Turismo Irigarritasunaren Eredua :

https://www.industria.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/modelo_accesibilidad_turistica/e_s_def/adjuntos/090217_Modelo_Accesibilidad_Turistica_Euskadi.pdf

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

- 2010ean turismo irisgarriaren zigilua sustatzen eta merkaturatzen hasi zen. Desgaitasun zehatzaren arabera (fisikoa, intelektuala, sentsoriala, bisuala-entzumenekoa eta organikoa), ereduak bere logotipoa zuen, hainbat ikonorekin.
 - Euskadiko turismo-irisgarritasunaren ereduak establezimendu⁷ mota bakoitzaren baldintza teknikoak zehazten zituen (hotelak eta apartamentu-hotelak, pentsioak, nekazalturismoak eta landetxeak, etab.).
- 2012-2016 legegintzaldian eredu berrikustea erabaki zen, eta 2016-2020 legegintzaldira arte ez zen aplikatu; izan ere, Turismo Sailak Basquetourri esleitu zion proiektuaren kudeaketa, eta hark, Sailaren eta ONCE Fundazioaren laguntzarekin, eredu berrikusi zuen. Berrikuspen horren helburua arau eredu batetik zerbitzura bideratutako eredu batera igarotzea izan zen. Euskal Turismo Irisgarritasunaren Ereduaren bereizgarriak emateko irizpideak berrikusi ziren eta 18 baliabide turistiko berrebaluatu ziren (aurretik emandako bereizgarria oraindik indarrean zutenak).
- 2019an, diagnostikoak egiteari utzi zitzaion, eta irisgarritasunari buruzko prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren eremua indartu zen:
 - Irisgarritasunari buruzko prestakuntza agenteei eman zitzaion: Euskadiko turismo-lankidetzako erakundeetako langileei (teknikari kudeatzaileak, lehiakortasuneko teknikariak...), turismo-aholkularitzako enpresetako profesionalei (aholkulariei, prestatzaileei, ebaluatzaileei...) eta turismoko, ostalaritzako eta lotutako karreretako titulazioetako ikasleei, eta turismo-sektorean erantzukizunak dituzten herri-administrazioetako langileei, aldundiei, udalei eta abarri. 69 pertsonak jaso zuten irisgarritasunari buruzko prestakuntza.
 - Hiru lurralde historikoetako 4 azpisektoreetako euskal turismo-enpresak sentsibilizatzeko eta prestatzeko jardunaldiak antolatu ziren: ostatua (hotelak, pentsioak, landetxeak, nekazalturismoak, aterpetxeak eta kanpinak); jatetxe-zerbitzuak (jatetxeak, tabernak eta kafetegiak, upategiak, sagardotegiak eta txakolindegia); turismo-informazioko bulegoak; eta interpretazio-zentroak. 150 turismo-enpresak parte hartu zuten jardunaldietan.
- 2020-2024 legegintzaldian planteamendu berri bat proposatu da, eta euskal turismo-lehiakortasunerako eraldaketa jasangarri eta arduratsurako bidean aurrera egin da, 2020ko Euskal Turismoaren Plan Estrategikoaren⁸ esparruan. Horretarako, besteak beste, Turismoko Estatu Idazkaritzak antolatutako lantaldeetan parte hartzen da, turismo-erakundeei kudeaketaren, berrikuntzaren, teknologiaren, irisgarritasunaren eta jasangarritasunaren arloetan hobetzen lagunduko dien eredu integral bat lortzeko.
- Aldi berean, Basquetour Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa⁹ lantzen ari da, Munduko Turismoaren Kode Etikoa egokitzapen baten ondorioz. Euskal Kodeak 8 printzipio ditu, eta bigarrena berdintasuna, inklusioa eta aniztasunarekiko tolerantzia da.

⁷ Ikusi hemen establezimenduen betekizun-teknikoak:

<https://www.euskadi.eus/accesibilidad/web01-a2turism/eu/>

⁸ Ikusi Euskal Turismoaren Plan Estrategikoa 2020:

https://www.euskadi.eus/contenidos/proyecto/plan_estrat_turismo_vasco_2020/eu_def/adjuntos/plan-estrategico-turismo-vasco-2020-eu.pdf

⁹ Ikusi Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa:

<https://basquetour.eus/turismo-euskadi-kode-etikoa.htm>

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

- Euskadiko Turismoaren Kode Etikoaren esparruan, hainbat prestakuntza antolatzen dira irisgarritasunaren arloan (pertsona guztientzako turismoa; turismo-irisgarritasuna; turismo irisgarria). 624 erakunde prestatzea lortu da. 2023an, irisgarritasunari buruzko prestakuntzarekin jarraitzen da. Prestakuntza hori nahitaezkoa da Euskadiko Turismoaren Kode Etikoaren lehen jarraipen urteko erakunde guztientzat.
- Gaur egun, DTI metodologia (helmuga turistiko adimenduna) ere ezartzen ari dira euskal helmugetan (udalerrak eta eskualdeak). Metodologia horretan 5 ardatz lantzen dira: gobernantza, irisgarritasuna, teknologiak, berrikuntza eta iraunkortasuna. Etorkizunean, enpresentzako DTI eredu bat sortu nahi da.

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

Kontsumobide	
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA	
Irisgarritasunaren arduraduna	
Administrazio eta zerbitzuen arduraduna	
Irisgarritasun planik ba al da?	Ez
Plana onartu zen urtea (formularioa)	-
Aurreikusitako aurrekontua	-
Gauzatutako aurrekontua	-
Irisgarritasun unibertsala sustatzeko berariazko partida ekonomikorik ba al da?	Ez
2022ko aurrekontua	-
Bestelako jarduerak	
Irisgarritasuna hobetzeko jarduerarik egin al da?	Bai
Herritarrentzako ekitaldiak, kanpainak, partaidetza prozesuak... antolatu dira?	Bai
Irisgarritasun-irizpideak kontuan hartu dira?	Bai
Irisgarritasunari buruzko prestakuntza-ikastarorik eman al zaie erakundeko langileei?	Ez
Arreta irisgarria sustatzeko neurriak txertatu al da?	Bai
Irisgarritasun-araudi eta -irizpideei buruzko gida/txosten/eskulibururik egin al da?	Ez
Erabiltzaileek antzemandako beharrak jasotzeko sistemarik jarri al da martxan?	Bai
Ekintzen ezarpenen egindako aurrerapenak	
- Kontsumobidek ez du Irisgarritasun Planik, baina orain dela gutxi erakundeak irisgarritasuna hobetzeko hainbat jardura garatu ditu. 2022an 3.200 €-ko aurrekontua gauzatu zuen. 2022an, Gasteizko egoitza nagusiaren eraikinean akats txiki bat antzeman zen irisgarritasun fisikoaren arloan. Oro har, eraikin irisgarria da (arrapalak, igogailuak, bi altueratako salmahaiak), baina sarrerako barandetako batek ez zuen araudia osorik betetzen, ez baitzen arrapalaren amaieraraino iristen. Akats txiki hori 2022an konpondu zen. - Bestalde, Kontsumobidek hainbat ekitaldi eta kanpaina antolatu ditu herritarrentzat; zehazki, 2 ekitaldi, 8 argitalpen, 4 kanpaina eta antzeko beste 2 jardura zenbatu ditu, guztiak ere irisgarritasun fisikoaren eta irisgarritasun kognitiboaren irizpideen arabera antolatuta (piktogramak, hizkuntza argiko dokumentuak eta abar erabiliz). - Kontsumobidek erabilgarritasunean, hizkuntza argian eta irakurketa errazean oinarritutako arreta eskuragarria bermatzeko neurriak aplikatu ditu, bai aurrez aurreko arretan, bai telefono bidezko arretan, bai argitaratutako edukietan (euskarri fisiko eta digitaletan). Ahalegin berezia egiten ari da hizkuntza argia eta erraza erabiltzeko, administrazio-hizkera sinplifikatuz, eta arlo horretan aurrera egiten jarraitzea eta etorkizunean hizkuntza argian eta irakurketa errazean espezializatutako kanpo zerbitzua kontratatzea espero da. - Erakundeak kontsumitzaile zaurgarrien kontzeptua lantzen du, eta kolektibo horrek erraz ulertzeko moduko testuak idazten ditu. Gainera, herritarrei arreta eskaintzen die hainbat bide erabiliz (aurrez aurrekoa, telefono bidezkoa eta digitala), eta kanpainak hainbat kanaletan argitaratzen ditu (webgunea, newsletterra, irratia, telebista). Hori dela eta, mezuak jasotzen dituzten jendeari egokitzen saiatzen dira.	

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

- Azkenik, 2022an, Kontsumobidek eten digitalari buruzko azterlan bat egin zuen, kolektibo zaugarriak identifikatzeko eta etorkizunean emaitza horien arabera neurriak hartzeko. Prozesu horri esker, erabiltzaileek antzemandako gabeziak eta beharrak identifikatu ahal izan dira.

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

4.3 Elkarte eta Elkargo Profesionalen Jarduna

ELKARTEAREN / ERAKUNDEAREN IZENA	
Arabako Arkitektoen Elkargo Ofiziala (COATAraba)	
Irisgarritasunaren arduraduna	
Irisgarritasun planik ba al da?	Ez
Plana onartu zen urtea (formularioa)	
Aurreikusitako aurrekontua	
Gauzatutako aurrekontua	
Irisgarritasun unibertsala sustatzeko berariazko partida ekonomikorik ba al da?	
2022ko aurrekontua	
Bestelako jarduerak	Bai/ Ez
Irisgarritasuna hobetzeko jarduerarik egin al da?	Ez
Herritarrentzako ekitaldiak, kanpainak, partaidetza-prozesuak... antolatu dira?	
Kontuan hartu al dira irisgarritasun-irizpideak ekitaldi horien antolaketan eta garapenean?	Ez
Irisgarritasunari buruzko prestakuntza-ikastarorik eman al zaie erakundeko langileei?	Ez
Arreta irisgarria sustatzeko neurriak txertatu al da?	Bai
Irisgarritasun-araudi eta -irizpideei buruzko gida/txosten/eskulibururik egin al da?	Bai
Erabiltzaileek antzemandako beharrak jasotzeko sistemarik jarri al da martxan?	Ez
Ekintzen ezarpenean egindako aurrerapenak (Irisgarritasunaren arloan egindako jarduketaren xehetasuna)	

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

ELKARTEAREN / ERAKUNDEAREN IZENA	
EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALA (EHAE0)	
Irisgarritasunaren arduraduna	
Elkargoko 3 arkitekto	
Irisgarritasun planik ba al da?	Ez
Plana onartu zen urtea (formularioa)	-
Aurreikusitako aurrekontua	-
Gauzatutako aurrekontua	-
Irisgarritasun unibertsala sustatzeko berariazko partida ekonomikorik ba al da?	Ez
2022ko aurrekontua	-
Bestelako jarduerak	Bai/Ez
Irisgarritasuna hobetzeko jarduerarik egin al da?	Ez
Herritarrentzako ekitaldiak, kanpainak, partaidetza-prozesuak... antolatu dira?	Bai
Kontuan hartu al dira irisgarritasun-irizpideak ekitaldi horien antolaketan eta garapenean?	Bai
Irisgarritasunari buruzko prestakuntza-ikastarorik eman al zaie erakundeko langileei?	Ez
Arreta irisgarria sustatzeko neurririk txertatu al da?	Ez
Irisgarritasun-araudi eta -irizpideei buruzko gida/txosten/eskulibururik egin al da?	Ez
Erabiltzaileek antzemandako beharrak jasotzeko sistemarik jarri al da martxan?	Ez
Ekintzen ezarpenean egindako aurrerapenak (Irisgarritasunaren arloan egindako jarduketaren xehetasuna)	
- Aholkularitzari eta informazioari dagokienez, 2022an zehar, CAT-COAVNek irisgarritasun unibertsalaren arloan aholkularitza eskaini die arkitekto elkargokideei, eta CAT zirkularren bidez irisgarritasun unibertsalari buruzko berrikuntzak eta araudi-aldaketak, dokumentuak eta intereseke ekintzak komunikatzeko lanak ere egin dira. - Prestakuntza-ekintzei dagokienez, honako jarduera hauek egin dira: 2022/06/20-23: 50 urtetik gorako eraikinak birgaitzea. Bizigarritasun-baldintzak betetzea eta SUA (16 ordu) (online eta aurrez aurre), Arabako ordezkarietan. 2022/06/14: irisgarritasun unibertsalari buruzko prestakuntza-saioa (8 ordu) (online), Gipuzkoako ordezkarietan. - Gainera, 2022an EHAE0 webgune berria garatu da irisgarritasun unibertsaleko irizpideekin, eta BISA atala jarri da abian. - Era berean, erakundeak aktiboki parte hartu du Euskadiko irisgarritasun plan integralei buruzko ponentziaren inguruan antolatutako ISEKen saioetan. Etxebizitzako irisgarritasun-indizeei buruzko saio parte-hartzaileetan ere parte hartu du.	

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

ELKARTEAREN / ERAKUNDEAREN IZENA	
EGINAREN EGINEZ, Urritasun fisikoa duten pertsonen Arabako elkarte -- (elkartean Araba)	
Irisgarritasunaren arduraduna	
Elkarteko lehendakaria	
Irisgarritasun planik ba al da?	¿?
Plana onartu zen urtea (formularioa)—Elkarte mugimendua gara	
Aurreikusitako aurrekontua	
Gauzatutako aurrekontua	
Irisgarritasun unibertsala sustatzeko berariazko partida ekonomikorik ba al da?	¿?
2022ko aurrekontua (elkarte-programetako bat da)	Bai
Bestelako jarduerak	Bai/Ez
Irisgarritasuna hobetzeko jarduerarik egin al da?	Bai
Herritarrentzako ekitaldiak, kanpainak, partaidetza-prozesuak... antolatu dira?	
Kontuan hartu al dira irisgarritasun-irizpideak ekitaldi horien antolaketan eta garapenean?	Bai
Irisgarritasunari buruzko prestakuntza-ikastarorik eman al zaie erakundeko langileei?	Ez
Arreta irisgarria sustatzeko neurririk txertatu al da?	Bai
Irisgarritasun-araudi eta -irizpideei buruzko gida/txosten/eskulibururik egin al da?	Bai
Erabiltzaileek antzemandako beharrak jasotzeko sistemarik jarri al da martxan?	Bai
Ekintzen ezarpenean egindako aurrerapenak (Irisgarritasunaren arloan egindako jarduketaren xehetasuna)	
Kanpainak: https://www.eginez.org/eu/campanas-eginez/mugikortasunaren-erruleta/ https://www.eginez.org/eu/campanas-eginez/bestelekubatzatbilatu/ https://www.eginez.org/eu/campanas-eginez/jarri-nire-lekuan/	
Gidak: https://www.eginez.org/v2/docs/doc5e2f2c8947f73Guia%20Util%2016%20Cast%20Terrazas%20y%20Veladores%20WEB.pdf https://www.eginez.org/v2/docs/doc5c12ced4a6b51Guia%20Util%2013%20C.pdf (Irisgarritasuna Garraioan) https://www.eginez.org/v2/docs/doc5c12861bf1a20Guia%20Util%2012%20C.pdf (V. eranskina, Eraberritze-lanak) https://www.eginez.org/v2/docs/doc5c128759d73d4Guia%20Util%2011%20C.pdf (IV. eranskina, Komunikazioa) https://www.eginez.org/v2/docs/doc59ef15cdcc934Guia%2010%20C%20(1).pdf (20/1997 Legea) https://www.eginez.org/v2/docs/doc58a5ce05da239Guia%209%20C.pdf (Eraikinen irisgarritasuna) https://www.eginez.org/v2/docs/doc58a5cd72c2ca7Guia%208%20C.pdf (Hiri-ingurunekeo irisgarritasuna) https://www.eginez.org/v2/docs/doc530b103a0e8b12Guia%20pasajeros.pdf (Aireko garraioa, Europako merkatu bakarra) https://www.eginez.org/wp-content/uploads/2020/12/elkartean_cast.pdf (jabetza horizontala, elkartean)	

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

Jardunaldiak:

“Irisgarritasuna Sustatzeko Legearen 20 urteak”, Europa Biltzar Jauregia, Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 26a.

Akzio judizialak:

414/2013 Epaia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta Euskal Trenbide Sarea Vitoria-Gasteizko tranbiaren geralekuak Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legearen 68/2000 Dekretuan aurreikusitako irisgarritasun baldintzetara egokitzeko beharrezko obrak eta aldaketak egitera kondenatzen dituena.

53/2018 Epaia, honako hau ezartzen duena: nasaren eremu osoan 1,80 metroko zabalera bete beharko da, Vitoria-Gasteizko tranbian saltzeko makinak dauden bloke teknikoko eremuak barne.

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

ELKARTEAREN / ERAKUNDEAREN IZENA	
FEVAS Plena inclusión Euskadi	
Irisgarritasunaren arduraduna	
Irisgarritasun planik ba al da?	
Plana onartu zen urtea (formularioa)	
Aurreikusitako aurrekontua	
Gauzatutako aurrekontua	
Irisgarritasun unibertsala sustatzeko berariazko partida ekonomikorik ba al da?	
2022ko aurrekontua	
Bestelako jarduerak	Bai/Ez
Irisgarritasuna hobetzeko jarduerarik egin al da?	Bai (7) (10)
Herritarrentzako ekitaldiak, kanpainak, partaidetza-prozesuak... antolatu dira?	Bai (1) (2) (3) (4) (6) (9)
Kontuan hartu al dira irisgarritasun-irizpideak ekitaldi horien antolaketan eta garapenean?	
Irisgarritasunari buruzko prestakuntza-ikastarorik eman al zaie erakundeko langileei?	Bai (7)
Arreta irisgarria sustatzeko neurririk txertatu al da?	
Irisgarritasun-araudi eta -irizpideei buruzko gida/txosten/eskulibururik egin al da?	Bai (5) (8)
Erabiltzaileek antzemandako beharrak jasotzeko sistemarik jarri al da martxan?	
Ekintzen ezarpenean egindako aurrerapenak (Irisgarritasunaren arloan egindako jarduketaren xehetasuna)	
(1) Euskaldun Jauregira egindako bisita gidatuaren irisgarritasun kognitiboaren ebaluazioa: adimen desgaitasuna duten 4 pertsonak egindako bisita ebaluatzeko galdetegi bat diseinatzea. Jarduera hori otsailean egin zen. (2) Irisgarritasun kognitiboari eta Irakurketa Errazaren erabilerari buruzko prestakuntza, musikaren arloko profesional-talde bati zuzendua, 2022ko "Ekosistema musikala. Lidergoa, aniztasuna eta berrikuntza kudeaketa-ereduetan". Ekainaren 30ean egin zen, Donostian, eta guztira 20 pertsonak hartu zuten parte. Ikusi hemen egitaraua (3) "Murgiltze Inpresionistak" erakusketako testuak irakurketa errazera egokitzea, Artapar kultura-enpresarekin eta Euskalduna Jauregiarekin lankidetzan. (4) "Irisgarritasun kognitiboko jardunbide egokiak" izeneko ponentzia parte hartzea, abenduaren 12an, Bilbon, ONCE Fundazioak beste erakunde eta administrazio publiko batzuekin batera antolatutako "Gure herri eta hirietan irisgarritasuna aztertzen eta pentsatzen" jardunaldiaren barruan. (5) "Egin ezazu erraz. Eskuragarritasun kognitiboa landu" dokumentuaren argitalpena. Irisgarritasun kognitiboa aplikatzeko orientazio errazak eskaintzen ditu. 700 deskarga ditu webgunean. (6) "Osasun gehiago Adimen edo garapen desgaitasuna duten pertsonen osasunerako eskubidearen alde" online aldizkariaren zabalkundea. Apirilaren 7an ospatu zen Osasunaren Mundu Eguna dela eta, aldizkari	

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

monografiko hau (2021) partekatu dugu Euskadiko osasun-eragile nagusiekin. Aldizkari horrek ikusgarritasuna ematen die adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen osasunerako sarbidean dituzten oztopoei. Oztupo horietako asko irisgarritasunarekin lotuta daude.

(7) Irisgarritasun Kognitiboko Talde bat sortzea, 10 erakundetako profesionalak osatua. Talde horren helburua da erakundeetan bertan irisgarritasun kognitiboa bultzatzea, arlo horretako profesionalen gaitasunak hobetzea eta ezagutza partekatzea. 2022an bi aldiz bildu da, irakurketa errazeko UNE 153101:2018 EX araua hobeto ezagutzeko. Dokumentuak egiteko eta Euskadin garatutako esperientziak ezagutzeko jarraibideak eta gomendioak (maiatzaren 13an eta irailaren 22an).

(8) [In aldizkaria \(20.zk.\)](#). Hezkuntza-komunitateari zuzendutako argitalpen honek Irakurketa Errazean eta Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalean (DUA) adituak diren pertsonen egindako elkarrizketak biltzen ditu.

(9) Musikeneko (Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia) Musika Bitartekotza, Kudeaketa eta Zabalkundeko Masterreko ikasleei prestakuntza ematea, "Musika-teknologia irisgarria" proiektuaren esparruan. Proiektu honek irisgarritasunarekin lotutako oztopoak identifikatu nahi ditu, desgaitasun intelektuala edo garapenekoak duten pertsonen musikari gisa garatzeko eta musika-hezkuntzan sartzeko dituzten oztopoak, hain zuzen ere.

(10) ISEK Irisgarritasunaren Euskal Kontseiluan parte hartzea.

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

4.4 Hiriburueta Udalen Jarduna

BILBOKO UDALA 340.455 biztanle	
IRISGARritasunaren Arduradunaren Datuak	
Udalan ez dago Irisgarritasunaren arduradun bat izendatuta. Aipatzen den proiektuaren arabera, hainbat arlok esku hartzen dute. Irisgarritasun unibertsalari buruzko informazio guztia biltzen ari den zuzendaritza Kalitate eta Ebaluazio Kabinetearena da. 2019-2023 agintaldian, kabinete hau Bilboko Udaleko Herritarren eta Nazioarteko Arreta eta Partaidetza Arloko kide da.	
Lau urteko Irisgarritasun Planik ba al da?	Ez
Plana onartu zen urtea (diru-laguntzen oinarria)	2004
Aurreikusitako aurrekontua	--
Gauzatutako aurrekontua	--
<u>Irisgarritasun unibertsalaren arloko jarduketak</u> Ez dugu Irisgarritasunari dagokion lau urteko planik; hala ere, Agintaldiko Planean, 100 konpromiso dituen lau urteko plana, hainbat konpromiso irisgarritasunari lotuta daude: “Herritarrentzako informazioa hobetzea, irisgarritasun unibertsalaren eta guztiontzako diseinuaren ikuspegitik”. - Hemen kokatzen dira Irakurketa Errazaren 2. planean eta arreta irisgarriaren inguruan garatzen ari garen ekintza asko. - Dokumentuen egokitzapena - Zeharkako prestakuntza - Espazio publikoen diagnostikoak eta ziurtagiriak - Arreta- eta informazio-sistemak baliozkotzea - Eten digitala murrizteko proiektua. - Irisgarritasun unibertsala bultzatzeko tresnak: eskuliburuak, zerbitzuak diseinatzeko tresnak, etab. “Auzo altuen irisgarritasuna hobetzea”: batez ere oztopo fisikoei lotuta; horren ondorioz, adibidez, Bilboko barruti guztietan igogailu publikoen kopurua handitu da; bizilagunen komunitateetan igogailuetarako laguntzak handitu dira; zoladura, espaloiak hobetu dira; auzoak komunikatzen dituzten oinezkoentzako ibilbideak sortu dira; elkarguneak sortu dira, estantzia-guneekin, bankuekin eta abarrekin. “Adineko pertsonen lagunkoia diren hiriak”: hiriaren alderdi asko ikuspegi fisikotik eta beste batzuk kognitibotik; adibidez, adinekoentzako eten digitalaren aurka borrokatzeko konpromisoa. Emakumeen ahalduntzea eta partaidetza soziopolitikoak: besteak beste, genero-arrakala digitalaren aurka borrokatzeko ekintzak sustatuz. (7 edizio 84 emakume); Etxebizitzaren Udal Plan berria: besteak beste, beste ekintza batzuen artean, sarbide-eredu berriei, laguntzei eta arreta-moduei buruzko alderdiak sustatuz. “Mugikortasun Planaren” barruan: garraioaren irisgarritasunari dagokion guztia, Bilbobus, markesinak, jendearen arretarako bulegoa, eta abar, auzoen arteko lotura-lineak, eta abar. WIFI bidezko Internetarako doako konexioa auzoetako aisialdiko gunek eta ekipamenduetara zabaltzea, eten digitala murriztuz. Segurtasunaren aldeko ituna berrikusten jarraitzea: biktimei (adinekoak, zaugarriak, adingabeak, etab.) laguntzeko unitatea garatzen lan eginez, komisarien irisgarritasun unibertsalean aurrera eginez, etab.	

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILLEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

Lau urteko Planean jasota ez dauden irisgarritasuna hobetzeko jarduerarik garatu al da?			Bai
Jarduera horien aurrekontua			17.000.000 €
Ez da erraza irisgarritasunarekin lotutako aurrekontua identifikatzea, zeharkako elementua baita, hainbat ekintzari eta arlori lotuta dagoena, hau da, hainbat partidatan sakabanatuta dagoena; batzuk gastu arruntekoak dira, beste batzuk inbertsio-gastukoak, batzuk udal-enpresetan, eta, gainera, askotan, arloko giza baliabideekin garatzen diren ekintzak daude. Baina uste dugu gutxienez 17 milioi euro ingurukoa izan daitekeela.			
Irisgarritasun unibertsala sustatzeko berariazko partida ekonomikoa			
2020ko aurrekontua			
Eusko Jaurlaritzaren irisgarritasunerako diru-laguntzak			
Irisgarritasun plana	Diru-laguntzaren zenbatekoa		Urtea
			2004
Obrak	Jarduketa	Dirulaguntza	Aurrekontua
Bestelako jarduerak			
Herritarrentzako ekitaldiak, kanpainak, partaidetza-prozesuak... antolatu dira?			Bai
Irisgarritasun-irizpideak kontuan hartu dira?			Bai
Irisgarritasunari buruzko prestakuntza-ikastarorik eman al zaie erakundeko langileei?			Bai
Arreta irisgarria sustatzeko neurririk txertatu al da?			Bai
Erabiltzaileek antzemandako beharrak jasotzeko sistemarik jarri al da martxan?			Bai
Ekintzen ezarpenean egindako aurrerapenak			
Informazioa, komunikazioa eta IKTak			
Dokumentazioa berrikustea irakurketa errazeko irizpideekin: 556 dokumentu berrikusi dira. Herritarrekin kontrasteak: herritarrekin kontrastatuta 35 dokumentu egokitu dira. 2019an 15 eta 2022an 20. 72 pertsonak parte hartu dute; 49k 2019an eta 36k 2022an. - Garatutako edo baliatutako eta irisgarritasun-sistema sendotzeko edo jasangarri egiteko baliagarriak diren tresna batzuk: - Youtuben argitaratutako 3 bideo irisgarri diseinatu ditugu - Eremuetarako eskuragarri dauden bideoak diseinatzeko gida bat garatu dugu (2023ko otsailean Eskuliburua amaituta, itzultzen ari gara eta barnean banatu behar dugu, sailek ezagutu eta hornitzaileek erabili ahal izan dezaten) - Aplikazio irisgarriak egitea (adibidez, Aste Nagusirako aplikazioa, etab.). - Abian, zerbitzu irisgarriak diseinatzeko eta ebaluatzeko tresna. Funtzionala amaituta dago, pilotua Excel batean egin zen, eta orain tresna sendoago bat lantzen ari gara, martxoan prest egongo dela uste dugu). - Irakurketa errazaren arabera testuak lantzeko laguntza-tresnak - UNE 170001 Irisgarritasun Unibertsalaren Ziurtagiria - Ziurtatutako zerbitzuen kartetan irisgarritasun-konpromisoak txertatu dira - Irakurketa errazera egokitutako inkestak eta irakurketa errazari buruzko txostenak Etab. 4. Prestakuntza Plana (funtsezkoa proiektuaren iraunkortasunerako, informazioa eta komunikazioa lantzeko, ikusi aurrerago dokumentu honetan). Eten digitala murrizteko ekintzak: zerbitzu berri bat sortzea. Laguntza digitaleko puntua. Barruti guztietan zabaldua. Izapideak egiten laguntzeko eta pertsonak erronka digitalaren aurrean ahaldunduko dituen prestakuntza erabilgarria jasotzeko. Pilotu bat egin zen 2022ko irailetik 2022ko			

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

abendura. Informazio guztia aztertu zen, eta kontratazio berria abian dago; uste dugu martxoaren amaieran zerbitzua berriro martxan egongo dela. 2.081 pertsona artatu dira, 2.474 kontsulta egin dira. 6. Barneko newsletter bat egin da, zerbitzueta irisgarritasunari buruzko jardunbide egokienak zabaltzeko. 7. Dokumentu elektronikoen eskuragarritasuna hobetzea (letraren tipologia eta tamaina aldatzea, hizkuntza argia erabiltzea). Asko geratzen da erronka honetan aurrera egiteko. Zerikusi handia dauka web diseinuarekin eta teknologiarekin. 8. Guztira, 267 Wifi sarbide-puntu ezarri dira. Udal Wifiko sarbideak ere handitu egin dira, Bilbobuseko 50 markesina berritan.
Eremu urbanizatuak eta espazio publikoak: • 2019tik 2022ra bitartean, 225 pasabide beheratu dira, batez beste 56 pasabide urtean. • 20.684 metro karratu espaloi baino gehiago berritu eta eraiki dira. Espaloi-beherapenak oinezkoentzako pasaguneetan, informazio-banda sartuz, eta pasabideen eraberritzea itsuentzako baldosa podouktil bidez. • Oinezkoentzako oztopoak kendu dira, eta oinezkoentzako kale berriak edo kale erdi-peatonal berriak sortu dira: 7 • Parkeak eta plazak sortu edo birgaitu dira: 6; 2022an, 20.873 metro karratuko lorategiak. • Igogailuak bizilagunen komunitateetan: 375 komunitate
Herritarren mugikortasuna: • Hiru-eremuan igogailu publikoak (>64 igogailu) eta arrapalak jartzea, auzoak komunikatuz. • Bilbobus irisgarritasun unibertsaleko irizpideetara egokitzea (autobus irisgarriak, ibilbide irisgarriak, markesinetako aplikazio irisgarriak (ezintasun-mota guztietarako), Bilbobusen bulego irisgarriak, logoaren piktogramaren aldaketa, bulegoa guztiz irisgarria da: QR kodeak, koloreak, etab. • Bilbobus programa ikasgelan: hezkuntza bereziko ikastetxei zuzendua • Aparkalekuan irisgarritasuna landu da. Aparkalekuen zerbitzu-kartan irisgarritasun-konpromisoak sartu dira.
Zerbitzu publikoetarako sarbidea: 9. Hiriko hainbat espazio publikotan UNE 170001: Irisgarritasun Unibertsalaren Ziurtagiria lortu da: zehazki, Guggenheim, Euskalduna. 10. Udal-espazioetan ere horretan ari dira lanean. Ziurtatuta daude 4 kiroldegi, Bilboko Turismo Bulegoa eta Azkuna Zentroa; eta egun hauetan espazio berriak ziurtatuko dira. (adibidez, San Agustinen herritarren arretarako bulegoa). 11. Bilbo Kirolak-en kirol-guneak irisgarritasun unibertsaleko irizpideen arabera egokitzea (kiroldegietan inbertsioa ziurtagiri irisgarria lortzeko, egokitutako plazak eskaintzea). 12. Jolasgune irisgarriak. Bi zerbitzu karta ditugu, irisgarritasunaren ikuspegitik zenbait alderdi jasotzen dituztenak: eremu bioasungarrien parkearen zerbitzu-karta; eta haurrentzako jolas-eremuen parkeko zerbitzu-karta. Hala ere, karten hurrengo edizioetarako beste hobekuntza batzuk aurreikusi dira, irisgarritasunaren alderdia modu argiagoan ziurtatuko dutenak. 13. Baso-parkeen eta hiri-parkeen zerbitzu-karta. Alderdi interesgarri batzuk ere jasotzen dituzte. Hala ere, karten hurrengo edizioetarako hobekuntza gehiago egitea aurreikusi da, irisgarritasunaren itxura argiago ziurtatzeko. 14. Desgaitasun kognitiboa duten mendekoentzako plazak sortu dira. Irakurketa errazaren arabera egokitu dira gaitegiak, azterketak, deialdiak, etab.
Etxebizitza: 15. Igogailuen instalazioa jabekideen erkidegoetan: 375 erkidego onuradun. 16. Arrail digitaleko oztopoak murrizteko proiektu bat garatzen ari da, non bazterkeria arriskuan dauden pertsonak prestatzen ari diren eta, aldi berean, Bilbao Etxebizitzak izapideen erabiltzaileei irisgarritasuna erraztuko dien prestakuntza emateko.
Irisgarritasunaren arloko prestakuntza • Oztoporik gabeko arreta: dibertsitate funtzionala duten pertsonen arreta emateko teknikak: (527 parte-hartzaile), 46 edizio (desgaitasun mota desberdinak dituzten irakasleak). • Irisgarritasun unibertsala: UNE 170001:13 Arauaren kudeaketa eta ziurtapen sistema:13; ikastaro 1

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILLEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

- “Ingurune, ekitaldi eta zerbitzuetako irisgarritasuna ebaluatzen” fitxen aplikazioan trebatutako pertsonak: 12 pertsona, ikastaro 1
- “Informazio irisgarria: irakurketa errazean materialak sortzeko teknikak” (144 parte-hartzaile; 17 ikastaro).
- “Zeinu Hizkuntzako oinarritzko komunikazioa”: 44 pertsona eta 5 edizio 2022an; 66 pertsona eta 6 edizio 2023an.
- “Dibertsitate funtzionalaren eta irisgarritasunaren ikuspegia txertatzea udal programa eta zerbitzuetan”: 8 pertsona, ikastaro 1
- “Dokumentu elektronikoen irisgarritasuna”, 48 parte-hartzaile, 5 ikastaro

Kultura:

- Irakurketa klubak: 31 klub, 260 pertsona
- Irakurketa errazeko liburuaren 800 ale, liburutegi guztietan banatuta
- Museoen mapa, ikusmen- eta entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzako formatu irisgarrietan egina.

Berdintasuna:

- Eten digitalaren aurka egindako 7 ikastaroren edizioak, Berdintasunaren Arlotik sustatuak.
- Bestalde, laguntza digitaleko guneetan (proiektu pilotua 2022ko iraila-abendua) garrantzitsua da jakitea erabiltzaileen % 64 emakumeak izan direla.

Jaiak:

- Irisgarritasunaren zerbitzu-karta ziurtatua Aste Nagusian: horrek esan nahi du bere konpromisoak urtero ikuskatu eta berrikusten direla, eta karta hori berrikusten duen talde bat dago; talde hori, era berean, elkarte desberdinetako desgaitasunen bat duten pertsonak osatu zuten eta beren espektatibak landu zituzten, ondoren, konpromisoetara bideratu zirenak. Horrela, adibidez, programa eta beste dokumentu batzuk irakurketa errazaren arabera eginda daude, barraka irisgarriak...
- Aste Nagusirako App irisgarria, ASPACEekin baliozkotuta
- Txikiguneko begiraleen prestakuntza irisgarritasunari, zeinu-hizkuntzari eta abarri dagokienez (baldintza hori pleguan txertatu da).
- [Ikusi webgunea \(zerbitzu-karten konpromisoak\)](#)

Gizarte-ekintza:

- Adinekoentzat egokitutako bizikletak
- Farmaziekin hitzarmena, udaleko gizarte-zerbitzuek artatutako pertsonen medikazioaren erabilera hobetzeko programa garatzeko.
- Laguntza digitalerako gunea: herritar guztientzako zerbitzua, baina bereziki adinekoentzat, bazterkeria arriskuan dauden pertsonentzat eta etorkinentzat (zerbitzua diseinatzerakoan, batez ere talde horiekin harremanetan jarri ginen). Proiektu pilotuaren lau hilabete hauetan, 65 urtetik gorako erabiltzaileak guztizkoaren % 42 izan dira.

Kiroldegiak:

- 67.000 euro inbertitu dira 2022an kiroldegiak egokitzeko, eta 62.000 euro inbertitu ziren 2021ean.
- Kiroldegietako langileekin prestakuntza landu da, 24 pertsona desgaitasunen bat duten pertsonen arreta emateko eta 23 pertsona irakurketa errazeko gaietan.
- 4 kiroldegi, UNE 170001 arauaren arabera ziurtatuak; gainerakoekin jarraituko da. (Plan bat dago Udako kiroldegi guztiak ziurtatzeko). [albisteak ikusi](#)

Dokumentazioa:

- Irakurketa errazeko gida
- Irakurketa errazeko jarraibideen gida laburra (plastifikatua mahaian)
- Bideo irisgarriak egiteko gida
- Infografia “Hizkuntza argia erabiltzeko jarraibideak herritarrei ematen dizkiegun erantzunetan”
- 3 laguntza-bideo egin dira, irisgarritasun-ezaugarri guztiekin (youtuben eskegita): udalarekin harremanetan jartzeko moduari, udalarekin hitzorduak hitzartzeko moduari eta errolatzea eskatzeko moduari buruzko bideoak.

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

- Irisgarritasun unibertsalarekin lotutako lizitazioak gauzatzeko hautazko irizpideak txertatu dira
- UNE 170001 arauarekin bat, ziurtatutako espazioetarako prozedura hauek garatu eta ezarri dira:
 - Irisgarritasun-politika (konpromisoa)
 - Irisgarritasun unibertsala kudeatzeko eskuliburua
 - Irisgarritasun-katea
 - NC-AC-AM prozedura
 - Dokumentazioa eta erregistroak kontrolatzeko prozedura
 - Ikuskapen-prozedura
 - IT Begizta magnetikoa
 - IT Larrialdietan komunak jartzea
 - IT Desgaitasunen bat duten langileekin harremana
 - IT Interpretazio-protokoloa zeinu-hizkuntza- atzerriko hizkuntza
- Irisgarritasunari eta diseinu unibertsalari buruzko 22 fitxa
- Jendeari arreta emateaz arduratzen diren langileentzako gida. Dibertsitate funtzionalaren arreta.
- Igurikimenei neurketan irisgarritasun-ikuspegia txertatzeko prozedurak.
- Ekitaldiak antolatze gida: gai horiek antolatzeko prozedura erraz bat egingo dugu laster, eta arloka banatuko ditugu (deialdiak nola egin, beharrezko baliabideak, dokumentazioa nola egin irakurketa errazaren arabera).

Irisgarritasunaren arloko ekitaldiak eta ponentziak antolatzea:

- Garuneko Paralisisaren Nazioarteko Eguna dela eta (urriak 6), 2022an, alkateak sentsibilizazio-jardunaldi bat antolatu zuen garun paralisiko hizlari batekin, udaleko zuzendaritza-taldea bultzatzeko, Bilbon irisgarritasun unibertsala sustatzeko konpromiso irmoan aurrera egiten jarraitzeko.
- Jardunaldi bat antolatzea: 'Gure herri eta hirietako irisgarritasuna aztertuz eta pentsatuz'. Jardunaldia 2022/12/12an izan zen, eta ONCE Fundazioak antolatu zuen, ACS Fundazioarekin, Bilboko Udalarekin, UNE Normalizazioarako Espainiako Elkartearekin eta Bilbao Urban & Cities Design elkartearekin batera, irisgarritasunari eta hirigintzari buruzko eztabaida sustatzeko.
- BILBO Balioen Hiria: alkateak Balioen Karta sinbolikoa eman die Bilbon desgaitasunaren arloan lan egiten duten elkarte ugarietako ordezkariak. Gutuna hainbat formatutan garatu da: testu-dokumentu (digital) irisgarria, ahozko irakurketa duen audioa, Braillean inprimatua eta bideoa azpiztituluekin eta zeinu-hizkuntzarekin.
- Eten digitalari buruzko Deustuko Unibertsitatearen jardunaldian parte hartzea.

Informazio interesgarria:

- Irisgarritasunaren ikuspegia baliagarria da biztanle guztientzat, ez dio inori kalterik egiten eta denei mesede egiten die. Eskaileraren eta arrapalaren artean, askotan arrapala hartzen dugu; administrazio-hizkerako 30 orriren eta ikono, kolore eta hizkuntza argiagotzat hartutako 3 orriren artean, irakurketa errazekoak hartzen ditugu; Euskadiko adineko biztanleriaren profil demografikoa ikusita, garrantzitsua da ikuspegi hori kontuan hartzea.
- Europako Hiri Irisgarria Saria lortzeko baldintzen autodiagnostikoak eta Eusko Jaurlaritzaren hausnarketa-ereduak, irisgarritasun unibertsala ezartzeko ikuspegi aurrera egiten lagundu digute.
- Era berean, azterketa horiek baliagarriak izan zaizkigu irisgarritasunean aurrera egiteko, batez ere irisgarritasun kognitiboan eta sentsorialean:
 - Irakurketa Errazaren Institutuak 2018ko Lehen Irakurketa Errazaren Plana (Estatuan aitzindaria) egiteagatik emandako praktika onenaren saria.
 - EKren Toki Administrazioen Gobernantzako Bikaintasunaren Zigilua lortzea (2022ko urtarrila). 97 adierazle biltzen ditu: aitorpen honen komunikazio elementuak Gobernu Irekiari, parte-harteari, gardentasunari eta, beraz, herritarrek administrazio publikora duten irisgarritasunari buruzkoak dira. Irisgarritasunik gabe, gardentasuna eta parte hartzea ez dira posible.
- Zeharkakotasuna/intersektionalitatea: generoa, adina eta irisgarritasuna edozein esku-hartzetan egon behar duten elementuak dira (jakina, baita ingurumenaren gaineko eragina, eragin ekonomikoa,

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

proiektuaren iraunkortasuna eta abar ere, baina irizpide hauek une eta plano desberdinetarako dira).

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

DONOSTIAKO UDALA (GIPUZKOA) 187.849 BIZTANLE		
IRISGARritasunAREN ARDURADUNAREN DATUAK		
Ez dago Udal Irisgarritasunaren arduradunik. Legegintzaldi honetan, irisgarritasunari buruzko informazioa Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zuzendariari dagokio:		
Lau urteko Irisgarritasun Planik ba al da?		
Plana onartu zen urtea (diru-laguntzen oinarria)	2004	
Aurreikusitako aurrekontua		
Gauzatutako aurrekontua		
Ez dago lau urteko planik. 2019-2023 legegintzaldirako Gobernu Programak etengabeko eta urte anitzeko irisgarritasunaren arloko kudeaketa ezartzen du. Donostiako Udalak zeharkako ekintzak egiten ditu bere eskumenen barruan, bere jardueretan irisgarritasun unibertsalaren parametroak txertatzen dituzten Udal Sailen bitartez. 2017an, “Donostiako Hiri Ingurunearen eta Eraikin Publikoen Irisgarritasun Plana” lizitatu zen.		
Lau urteko Planean jasota ez dauden irisgarritasuna hobetzeko jarduerarik garatu al da?		
Jarduera horien aurrekontua	2.000.000 € /urte	
Urtero, Udal Aurrekontuan sartzen dira, alde batetik, irisgarritasun-partida orokorrak, espaloiak beharrezkoak, oinezkoentzako arrapala-sarbideak egiteko, oztopo arkitektonikoak kentzeko eta abar, eta, bestetik, kokapen zehatzetan irisgarritasuna hobetzeko berariazko partidak, hala nola arrapalak eta eskailerak jartzeko edo eremu osoak berrurbanizatzeko. Nolanahi ere, zeharkako helburu unibertsala denez, udal-sail bakoitzak irisgarritasun-irizpideak eta -parametroak txertatzen ditu hiri-ingurunean garatzen dituen jarduketa eta proiektuetan. Horrela, adibide gisa, Proiektu eta Obren Sailak irisgarritasuna hartzen du kontuan bere proiektuetan, Mugikortasun Sailak arrapalak eta igogailuak jarri ditu, eta Mantentze Sailak etengabe gauzatzen ditu espaloien jaitsierak eta hobekuntzak osasun-zentroetarako eta ikastetxeetarako sarbideetan, besteak beste. Oro har, 2.000.000 euroko urteko aurrekontua aurreikusi daiteke jarduera horietarako.		
Irisgarritasun unibertsala sustatzeko berariazko partida ekonomikoa		
2022ko aurrekontua		
Eusko Jaurlaritzaren irisgarritasunerako diru-laguntzak		
Irisgarritasun plana	Diru-laguntzaren zenbatekoa	Urtea
Ez		2004
Obrak	Jarduketen zenbatekoa	Dirulaguntza
2001-2016		

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

Bestelako jarduerak	
Herritarrentzako ekitaldiak, kanpainak, partaidetza prozesuak... antolatu dira? (1)	Bai
Irisgarritasun-irizpideak kontuan hartu dira? (2)	Bai
Irisgarritasunari buruzko prestakuntza-ikastarorik eman al zaie erakundeko langileei? (3)	Bai
Arreta irisgarria sustatzeko neurriak txertatu al da? (4)	Bai
Erabiltzaileek antzemandako beharrak jasotzeko sistemarik jarri al da martxan? (5)	Bai
Ekintzen ezarpenean egindako aurrerapenak	
(1) Udal-zuzendaritzek beren eskumenekoak diren partaidetza-prozesuak edo ekitaldiak gauzatzen dituzte. Gure kasuan, bilerak eta saioak egin ditugu hainbat elkarte eta talderekin Irisgarritasun Plana idazteko. Mugikortasunaren kasuan, teknikariak, herritarrak eta abar sentsibilizatzeko ekitaldiak egiten dira, irisgarritasun unibertsalari begira. Gauza bera gertatzen da Donostiako Turismoarekin. (2) Bai, kontuan hartzen dira egiten diren lekuen ezaugarriak, zeinu-hizkuntzaren itzultzailea izatea, etab. (3) Akordio bat dugu Elkartarekin irisgarritasunaren arloan udal-teknikariekin prestakuntza bat egiteko. (4) Gaur egun, herritarren arretarako bulego guztiak irisgarriak dira. Entzumen-desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko sistemak ere ezarri dira. (5) Herritarren postontzia tresna irisgarria da guztientzat.	

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA (ARABA) 256.743 BIZTANLE			
IRISGARritasunAREN ARDURADUNAREN DATUAK			
Ez du irisgarritasun-arduradunik. Lehen, Gasteizko Udalak irisgarritasunaren arduradun bat zuen, baina jada ez dago figura hori.			
Lau urteko Irisgarritasun Planik ba al da?			Si
Plana onartu zen urtea (diru-laguntzen oinarria)			2019
Aurreikusitako aurrekontua			
Gauzatutako aurrekontua			
Lau urteko Planean jasota ez dauden irisgarritasuna hobetzeko jarduerarik garatu al da?			
Jarduera horien aurrekontua			
Irisgarritasun unibertsala sustatzeko berariazko partida ekonomikoa			
2022ko aurrekontua			
Eusko Jaurlaritzaren irisgarritasunerako diru-laguntzak			
Irisgarritasun plana	Diru-laguntzaren zenbatekoa		Urtea
Bai	235.584,2		2005
Bai	18.525,0		2019
Obrak	Jarduketa	Dirulaguntza	Obrak
2001-2016		656.251,4	
2018	Villasuso Jauregian igogailua jartzea, irisgarritasuna hobetzea eta komun egokituak Hautzaro Haur Hezkuntzako Udal Eskolan igogailua jartzea	98.807,0	164.678,5
2020	Hainbat kaletako oinezkoentzako pasabideak eraberritzea Judizmendi Gizarte Etxean hiru jasogailu ordezte	127.445,9	262.446,1
Bestelako jarduerak			
Herritarrentzako ekitaldiak, kanpainak, partaidetza prozesuak... antolatu dira?			Bai
Irisgarritasun-irizpideak kontuan hartu dira?			Bai
Irisgarritasunari buruzko prestakuntza-ikastarorik eman al zaie erakundeko langileei?			Bai
Arreta irisgarria sustatzeko neurriak txertatu al da?			Bai
Erabiltzaileek antzemandako beharrak jasotzeko sistemarik jarri al da martxan?			Bai

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

Ekintzen ezarpenean egindako aurrerapenak
<u>Bizikidetza eta aniztasun zerbitzua</u> 2015ean, Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzua sortu zen, Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Sailaren mendekoa, eta, ordura arte, jatorrizko aniztasunari eta kultura aniztasunari arreta emateko zerbitzua izan zen. Une horretatik aurrera, haren eskumenak zabaldu egin ziren, eta desgaitasunen bat duten pertsonen, giza eskubideei eta memoria historikoari eman zitzaizen arreta. Zerbitzua osatzen duten teknikariak immigrazioko hiru teknikari dira, eta 2016an aniztasuneko teknikari bat sartu zen plantillan, taldea indartzeko eta beste kolektibo batzuetan oinarritutako ekintzak diseinatu ahal izateko, aniztasunean oinarrituta, diskriminazio- edo/eta bazterkeria-egoerak eragiten dituen faktore gisa. Profil profesional guztiek gizartearen eta giza zientzien esparruari erantzuten diote. Lan-esparrua giza eskubideak dira, eta ikuspegi horretatik diseinatzen diren ekintzen helburua da kolektiboen kontzientziazioa, ikusgarritasuna eta aintzatespena, aniztasunean oinarritutako harremana eta bizikidetza, eta udalaren barruan nahiz hiriaren inguruan gertatzen diren desberdintasun-egoerak arintzeko alternatibak bilatzea. Bizikidetza eta Aniztasunari buruzko II. Planak Hirirako Eskubidea du helburu, eta paradigma horrek bizikidetza positiboan lan egitea ahalbidetzen du, funtsezko bi osagairen bidez: diskriminaziorik eza eta herritartasun inklusiboa.
<u>Gasteizko irisgarritasunaren diagnostikoa</u> 2019an, 2015-2018 aldirako Irisgarritasun Planari buruzko datu-bilketa egin zen. Hainbat sail/zerbitzuren informazioa jaso zen, zehazki, honako hauena: Hirigintza, Landa Eremua, Web Edukiak, Espazio Publikoa eta TUVISA. Emandako datuekin 2015-2018 aldian gertatutakoari buruzko txosten/laburpen bat egiten da. - Ez da txosten zehatza, eta jaso ezin izan diren jarduera gehiago egon daitezke.
<u>Vitoria-Gasteizko Irisgarritasun Plana egitea</u> 2019an, Idazkaritza Tekniko bat kontratatu zen Irisgarritasun Plana berrikusteko: Irisgarritasun unibertsalerantz aurrera egiteko estrategia bat planifikatzeko, kanpoko idazkaritza bat kontratatu zen. Idazkaritza horrek diagnostiko bat egin zuen, eta desgaitasuna duten pertsonen kolektiboak ordezkatzan dituzten erakundeak eta Irisgarritasun Plana garatzeko ardura duten udal-teknikariak elkarriketatu zituen. - Estrategia gisa, Irisgarritasun Unibertsala Kudeatzeko Sistema (IUKS) abian jartzea proposatzen da, fase desberdinetan hedatzeko.
<u>Ezinduentzako arreta</u> <u>Hitzarmena Arabako Gorra elkartearekin:</u> ILSEren zerbitzua Gasteizko udalerriko pertsona gorrentzat, hainbat eremutako zerbitzu pertsonaletarako: osasuna, justizia, gizarte-zerbitzuak, etab. 2015etik 2023ra egindako jardura. <u>Hitzarmena Eginaren Egin ez elkartearekin:</u> Irisgarritasunari buruzko araudiari eta ez-betetzeen edo diskriminazioen aurrean egin daitezkeen jarduketei buruzko aholkularitza juridikoko zerbitzua mugikortasun murriztua duten pertsonentzat. 2015etik 2023ra egindako jardura. <u>Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuko diru-laguntzen deialdia:</u> 2016az geroztik, zerbitzuak diru-laguntzen lerro bat du aniztasunean oinarritutako bizikidetza, giza eskubideak eta memoria historikoa sustatzeko. Desgaitasunen bat duten pertsonen elkarteek sentsibilizazio-proiektuak aurkeztu dituzte hirian, kolektibo bakoitzaren eskubideak, espezifikotasuna eta beharrak ezagutarazteko. <u>Hiri Hezitzaileko Bizikidetza eta Aniztasun Programa:</u> Gasteiz Hiri Hezitzaileen Estatuko Sarearen parte da, eta udaleko arlo guztiek parte hartzen duten jardura-programa bat du, ikastetxeei eta hezkuntza-komunitate osoari zuzendua. Zerbitzuak atal propioa du, eta 2015/2016 ikasturtetik aurrera ikusteko eta entzuteko zailtasunak, zailtasun-kognitiboak eta osasun mentaleko zailtasunak dituzten ikasleengan enpatia ikusarazteko, aitortzeko eta sortzeko jarduerak eskaintzen dira. Elkarteek berek egiten dituzte jarduerak. Helburua prebentziozkoa da, eta pertsona guztiak berdintasunean kokatzea eta etorkizunean haien aniztasunaren ondoriozko diskriminazioak saihestea bilatzen da.

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

Irisgarritasun unibertsalaren arloko prestakuntza

- 2019an, irisgarritasun unibertsalari buruzko prestakuntza eskaintzen zaio Bizikidetzaz Zerbitzuko **talde teknikoari**: Gai horri lotutako kontzeptuak errazago erabiltzeko, une horretan zerbitzuko kide diren langileek bi orduko prestakuntza saio bat dute, diagnostikoa egiten duen erakunde berak ematen duena.
- 2020an, irisgarritasunari eta desgaitasunen bat duten pertsonekiko komunikazioari buruzko prestakuntza eskaintzen da: Helburua irisgarritasunari buruzko oinarritzko nozioak eskuratzea zen, bai eta zenbait tratu-jarraibide ere, desgaitasunen bat duten pertsonei arreta egokia eta errespetuzkoa emateko. Prestakuntza hori HABek artatzen duten Herritarrentzako Arreta Zerbitzuko langileei eskaini zitzaion.

Gidak egitea

- 2019an, desgaitasun-egoeran dauden pertsonei buruzko terminologia berrikusten da: prozesu parte-hartzailea egiten da desgaitasunen bat duten pertsonen elkarteekin, batez ere udal langileei zuzendutako gida bat egiteko, komunikazioetan desgaitasuna duten pertsonei buruzko terminoak behar bezala erabil ditzaten. Gasteizko ikastetxeetan banatzen dira aleak.

Zeinu-hizkuntza

- 2021-2022an, SILSE (HHEko Interpretteen Zerbitzua eta Interpretteen Gidak) sartu zen udal kirol-eta kultura-jardueretan: Zeinu-hizkuntza interpretatzeko proiektu pilotu bat jarri zen abian 2021/2022 ikasturtean, Gizarte Etxeetan eta BIZANetan egiten diren jardueretan. Pertsonek izena emateko ohiko prozedura jarraitzen dute, eta uda- langileek SILSEren eskaera helarazten dute, irizpide batzuen arabera baloratzen dena. Orain arte eskaera guztiak eman dira.
- 2023an, SVisual Bideo Interpretazio Zerbitzua abiatu zen zeinu-hizkuntzan: Martxoaren 1ean, zerbitzu hori honako leku hauetan jarri zen abian: 010 eta San Martin, San Antonio eta Salburuako KZko Herritarren Arretarako Bulegoak 092 eta Udaltzaingoaaren bulegoak, Salburuako Oinarritzko Gizarte Zerbitzua. Zerbitzua, beraz, modalitate bikoitzean ematen da: aurrez aurrekoa, arreta emateko postu batzuetan kokatutako tablet baten bidez, edo telefono bidezkoa.

Udalaren webgunea berrikustea

- 2019an, Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunearen erabilgarritasunari buruzko azterlan bat egin zen: webgunearen azterketa bat enkargatu eta egin zen, edukiak erabilgarritasun-irizpideetara egokitzeko (webgunearen kontsultak asetzeko erabilera erraza egiteko nolakotasuna) eta irisgarritasun unibertsalera egokitzeko eta erabiltzaileen esperientzia hobetzeko, udal webguneako nabigazioaren azterketan oinarrituta. Horretarako, landa-azterketa bat egiten da hainbat adinetako pertsonekin, hizkuntza ulertzeko zailtasunak dituztenekin, bai atzerriarrak direlako, hizkuntza ez dakitelako, bai zailtasun kognitiboak dituztelako. Txostena Web Edukien Unitateari helarazten zaio, beharrezko hobekuntzak egin ditzan.

Enplegua

- Vitoria-Gasteizko eskualdeko enplegu-plana: 2019an, Giza Baliabideen Sailaren proiektu baten bidez, desgaitasun kognitiboa duten pertsonak sartzen dira, hainbat udal-zerbitzutan administrari laguntzaile lanak egiten dituztenak.
- Desgaitasun kognitiboa duten pertsonak babestu gabeko lan-munduan sartzeko berrikuntza proiektua egitea: Zerbitzuak prozesu bat gidatzen du, Elkarlaneko Zuzenbidearen ikuspegitik eta Diseinuko Pentsamenduaren metodologia aplikatuta (Design Thinking), desgaitasun intelektuala duten pertsonak lan merkatuan sartzeko erronkari heltzen diona. Prozesuan administrazioetako eragileek parte hartzen dute (Eusko Jaurlaritza, Aldundia eta Udala), baita lanbide-hezkuntza formalekoek, laneratzeakoek eta elkarte eremukoek ere, LANBIDEn proiektu berezien deialdian lekua izango duen proiektu bat formulatzeko helburuarekin.

Turismoa

- 2021/2022an Gasteizen Helmuga Turistiko Adimentsu gisa lan egiten da: Ekonomia Sustatzeko Saila buru duen proiektu bat da, eta aztertzen dituen ardatzen artean irisgarritasuna dago. Zerbitzuak diagnostikoan parte hartu zuen, eskura zuen informazioa emanez eta abian jarriko ziren proiektuei buruzko informazioa emanez: SVisual eta SILSE Gizarte Etxeetako eta BIZANeko (adinekoen zentro soziokulturalak) jardueretan.

4. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN ETA ISEKeko KIDEEN JARDUNA

Desgaitasunari buruzko jardunaldiak

- 2022ko abenduan, Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna zela eta, Gasteizko Udalak Hirako Eskubidearen III. Jardunaldia antolatu zuen, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak ardatz hartuta.

